

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko azaroaren 29a / 519. zenbakia



**BERGARAKO HERRI MUGIMENDUAREN HAMABOSTALDIA**

**Abenduaren 2tik 15era:**

**erakusketak**

**hitzaldiak**

**film laburrak**

**ikuskizunak**

**ikastaroak**

**mahai ingurua**

**kontzertuak**

**herri bazkaria**

**BARRUAN**



**GEHIGARRIA**



# HARMAILATIK...

## Kirola bizi izateko!


**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikusiko  
duzu!**

Astelehenero,  
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:  
**Julen Iriondo**


## ATREBENTZIAEZPADA/ Ze egin biharko litzake emakumiei tratatu txarrak eragitten dotsenekin?



**MIKEL GARITANO**  
30 urte



**NEKANE EGAÑA**  
66 urte



**LUIS IRURETA**  
68 urte



**LUIS OSTOLAZA**  
60 urte



**MARIA ELENA URRIATEGI**  
52 urte



**NATALIA MURILLO**  
31 urte

Ez dakit ze erantzun. Egin daben berdiña egingo notsake. Uste dot eragin daben kaltia neurtu biharko litzakeela, eta horren arabera ko neurrixa jarri, baiña ze izan leiken ez dakit.

Eurei berdiña egin. Eta gero, andriangandik urrin ipiñi, ahalik eta urriñen, baita umiengandik be. Baiña zaindduta; ez oin legiak egitten daben moduan, kasorik be ez.

Merezi dabena emon bihar jako. Ze izan leiken ez dakit, baiña piskologo baten laguntzia biharko leuke. Izan be, kartzelara sartu eta atzera etarutzen dozu, eta lehengora doia.

Neurri gogorak hartu biharko liekela uste dot. Neure ustez, potruetatik esegi eta hantxe euki, sika-tu artian. Neurri gogorak hartu bihar die, bestela, alperrik.

Ez dakit, ba, ze esan. Kasu bat bizi izan dot nahiko ger-tu, eta harek barkatu egin zeban. Zailla da erantzutia, baiña argi daukat emaku-mia gehixago defendittu bihar dala.

Kartzelan sartu eta bizitza osorako han euki. Emaku-mezko bati tratatu txarrak eragittia egin leiken gau-zarik okerrenetakua da. Badaezpada, kartzelan dagonian, giltzia itsasora.

### TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK ZUHAITZAK APURTZEN ONDO PASATU** Udaleko brigadatik hots egin digute oraingoan. Asteburuan azoka ondoko zuhaitz bat apurtu dutela esateko deitu dute. Brigadakoek gehitu dutenez, astebururo agertzen dira zuhaitz bat edo bi apurtuta azoka inguru hartan edo Boni Laskurainen. Badirudi batzuek asteburuan zer egin ez dakitela eta horrelakoetan ematen dutela denbora. /M.B.

### ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KJROLAK /11

KULTURA /12

#### Herri Mugimendua

Bergarako Herri Mugimenduaren Hamabostaldia antolatu dute, hamar taldek, hilaren 2tik 15era.

#### Nesken eskubaloitza

Nesken bi eskubaloitza taldeek etxean jokatu dute, zapatuan. Seniorrek ez dute partidurik irabazi orain arte.

#### Zura boskotearen emanaldia

Bergarako Zura boskoteak kontzertua egingo du, bihar, zapatua, 19:30ean, udaletxe-ko areto nagusian.

### ASTEKO DATUA

# 20

#### DONOSTIAKO MARATOA BUKATU ZUTENAK

Bergarako 20 korrikalarik bukatu zuten domekan jokaturako Donostiako Maratoia. Horien artean, Roberto Zurro izan zen onena: 59. sailkatu zen Donostiako Maratoian (2:27:58).

### BESTEKE SANA

**“Pintore eta eskultore gutxi daude. Formala eta estrukturala den guztia ez da heltzen. Pinturak esfortzu handiagoa eskatzen du. Irudiak janda gaude eta pintura atzean gertatzen ari da. Nagusitasunez hitz egiten dute margolariok buruz, makramea egingo bagenu bezala: “begira! hor daude, margotzen”. Horrek pintura apurtzera behartzen gaitu, ihes egin eta berriz pinturara bueltatzera, ulertzeko. Uste dut pintore guztiak bidean geratu direla. Orain urte bete, hilabete irauten duten artistak daude eta gero erretiratu egiten gara. Erre egiten dira. Gainera, gero eta gazteagoak dira. Hori arriskutsuagoa da, oraindik. Txarrenera oker nago, eta horretara goaz, urgentziako arte batera, bizitza guztirako izateari utzi diona. MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA / Pintorea 'ABC'/02-11-23**

### BERAIEK DIÑOE/ Mikel Elkoroberezibar



*Herri barruari begiratu*

Zorionekoak izan behar dugu bergararrok; gure herrian egiten ari diren obra eta lanak ez dakit beste herriren batean emango diren. Arrasatetik Bergarantz sartzerakoan autopistaren Ola-ko zutabe erraldoiek ez dute faraoi egipziarrek eraikitako obeliskoen inongo inbidiarik; Basalgo aldean egindako tunelak ingeniari suitzarrek egindakoak txiki lagatzen dituzte. Angiozar aldean hasi dira, baimenik gabe gainera, AHTren lanak egiteko prospekzioak egiten. Bergararroi askotan itxurakerian jaustea leporatu digute bailarako gainontzeko biztanleek eta bergararra izateaz harro nagoen arren ez dakit, bada, arrazoia eman beharko ez diegun. Herri barrura begiratuta, aurrera egin beharrean atzera egiten ari garela uste dut.

Kultura arloan oraindik ez daukagu areto egokirik antzerkia edo edozein ekintza kultu-

ral ikusteko eta dagoen bakarra Novedades aretoa botatzear edo hobeto esanda jaustear dago. Hor dago Seminarioko auditoriumaren proiektua oraindik geldirik dagoena eta Arrizuriko etxean zer egiteko asmoa dago? Liburutegiari noiz bilatu behar zaio irtenbide duina?

Kirol arloan, berriz, poztekoa eta harro sentitzekoa da Behobia-Donostiara 160 bergarar joatea, baina eskerrak gure herriak trenbide zaharraren bidea mantentzen duela, zeren Udalak kirola egiteko erraztasunei zain baldin bagau-de... Ikusi besterik ez dago kiroldegi ondoan jarri duten “gimnasioa”. Intentzioa ona izango da, baina igerilekuek osasun arauak betetzen ez badituzte, lokal horrek ez dakit ba...

Agian gure herriko kanpoaldea desitxuratzen ari diren proiektu erraldoi horietara bideratutako bergararren diruak herri barrua txukuntzeko erabiliko bagenitu, egoera bestelakoa izan zitekeen.

# Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar

MAKETAZIOA  
Inaki Iturbe

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Maitane Arizabaleta  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91

ISSN  
1130-6599

TIRADA  
5.900 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 29  
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- ZAPATUA, 30  
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15
- DOMEKA, 1  
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15
- ASTEHEHENA, 2  
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- MARTITZENA, 3  
PUY, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 4  
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- EGUENA, 5  
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda)..... 943 76 24 40
  - Bergarako Udaltzaingoa..... 943 77 91 06
  - Antzuolako Udaltzaingoa..... 943 76 62 46
  - Ertzaintza..... 943 76 53 40
  - Osasun etxea..... 943 76 24 40
  - Asepeyo..... 943 76 16 43
  - Pakea..... 943 76 13 49
  - Angiozarko medikua..... 943 78 90 27
  - Antzuolako medikua..... 943 76 62 23
  - Odol emaleak..... 943 76 16 24
  - Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak..... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaltehea..... 943 77 91 00
  - Antzuolako Udaltehea..... 943 76 62 46
  - Udal Artxiboa..... 943 77 91 32
  - Igerilekuak..... 943 76 20 51
  - Kultura etxea..... 943 77 91 58
  - Liburutegia..... 943 77 91 62
  - Kiroldegia..... 943 76 56 41
  - Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia..... 943 76 14 92
  - Erregistroa..... 943 76 13 15
  - Jardun..... 943 76 36 61
  - Idolaz..... 943 76 65 08
  - Erretiratuen etxea, Bergara..... 943 76 21 40
  - Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71
  - Postetxea..... 943 76 26 85
  - Bedelkar..... 943 76 04 68
  - Akulu AEK..... 943 76 05 18
  - Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53
  - Bergarako notariotza..... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |                   |                    |
|-------------------|--------------------|
| <b>San Pedro</b>  | <b>Labegarieta</b> |
| Domekak:          | Domekak: 11:00.    |
| 09:30, 12:30.     | <b>San Lorenzo</b> |
| Zapatuak eta      | Zapatuak:          |
| lanegunak: 19:00. | 20:00.             |
| <b>Sierbak</b>    | <b>Angiozar</b>    |
| Lanegunak: 19:15. | Domekak:           |
| Zapatuak: 19:00.  | 11:30.             |
| Domekak: 11:30,   | <b>Moja</b>        |
| 13:00.            | <b>Zaharrak</b>    |
| <b>Osintxu</b>    | Lanegunak: 9:00.   |
| Domekak: 12:30.   | Zapatuak: 11:00.   |
| Zapatuak: 19:00.  | <b>Mizpirualde</b> |
| <b>Elosu</b>      | Lanegunak: 11:45.  |
| Domekak: 10:30.   | Zapatuak: 17:30.   |
| <b>Ubera</b>      | <b>Antzuola</b>    |
| Domekak:          | Domekak:           |
| 10:30.            | 09:00, 11:30.      |
| <b>San Juan</b>   | Zapatuak eta       |
| Domekak: 11:00.   | lanegunak: 19:30.  |
| <b>Elorregi</b>   | <b>Uzarraga</b>    |
| Domekak: 10:30.   | Domekak: 10:00.    |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
  - San Pedro**  
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

**OHARRAK**

**ALARGUNEN BAZKARIA**  
Alargunen Elkarteko bazkaria abenduaren 8an. Izenematea, Egoitzan.

**1977AN JAIOTAKOAK**  
1977an jaiotako bazkaria, abenduaren 14an, Etxagin. Izena emateko epea bihar arte zabalik (zapatua), Etxagin bertan (bost euroko depositua).

**1984AN JAIOTAKOAK**  
1984an jaiotako bazkaria abenduaren 24an. Egundorretan kantuan egitera aterako dira eta ondoren bazkaria egingo dute. Izenematea Etxagin, Kortazarren edo Bikon, abenduaren 11ra arte.

**ESKI DENBORALDIRAKO BONOAK**  
Pol-Pol Mendizale Taldeak eski denboraldirako bonoak salgai jarri ditu. Astuneko estaziorako prezioak honako hauek dira: 430 euro helduendako eta 345 euro gaztetxoendako. Candanchurako, berriz, helduenak 398 eurotan salgai daude eta 319 eurotan gaztetxoentzako. Bi argazki eta NAREN fotokopia eramatea beharrezkoa da. Pol-Poleko bulegoa astelehenerdik eguenera dago zabalik, 19:00etatik 20:30era. Argibide gehiago: 943 76 48 51.

**ODOL ATERATZEA**  
Bergarako Odol Emaileen elkarteak dei egin du eguaztenean, abenduaren 4an, egingo den odol ateratzean parte hartzeko. Ohi bezala, Seminarioan izango da, 18:30ean.

**'OLIVER' MUSIKALA BILBON**  
Bergarako Orfeoia Gabonetan Euskalduna jauregian egingo duen 'Oliver' musikala ikusteko sarrerak salgai daude. Emanaldiak urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean izango dira. Sarrerak 94 431 03 10 telefonoan edo BBKn.

**URBANOENORDUTEGIA**

- San Lorenzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunas aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildil okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolonia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugeriza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN**


**Aitor Zabaleta, bigarren, Espainiako Txapelketan**

Aitor Zabaleta auto gidariak bigarren postua eskuratu zuen Espainiako Mendi Igoeren Txapelketan. Jokatutako bederatziti probetatik hirutan nagusitu zen Zabaleta, eta bestetan ere aurrekoen artean izan zen. Saillapen orokorrean bigarren izan zen, Martinez txapelkunaren atzetik.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elempuru**

*"Basatzia"*



Lokatzadia. Baita elur zapaldua eta urtsua.  
— Mekauben, emen jak basatzia, oiñetako guztiak kakaztuko jittuau.  
— Azkenengo edurtian egundoko basatzia ein zan Bergako kaletan.

**ASTEKO FILMAK**


**'EL DRAGÓN ROJO'**

ZUZENDARIA: BRET RATNER. AKTOREAK: ANTHONY HOPKINS, EDWARD NORTON.

**HARIA.** Will Graham FBIko iker-tzailea da, eta haren lana da hiltzaile berezien izaera aztertzea. Graham-ek aholkua eskatuko dio kartzelan dagoen Hannibal Lecter-i hilketa batzuk argitzeko...

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



**'EL VIAJE DE CAROL'**

ZUZENDARIA: IMANOL URIBE. AKTOREAK: CLARA LAGO, JUAN JOSÉ BALLESTA, CARMELO GÓMEZ, MARIA BARRANCO.

**HARIA.** Carol AEBetan hazitako neskatxa da. Ama espainola dauka, eta 1938an, Espainiako gerraren garaian, amaren jaioterrira itzuliko da, aitona-amonen eta osaba-izeben etxera. Tomiche-rekin eta haren lagun koadrilarekin laguntasuna eta amodioa zer den deskubrituko du.

**TOKIA ETA ORDUA.** Zinekluba. Eguenean, abenduak 5, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**AZPEITXI**

**Jatetxea**

Aranerreka 13 behea. Bergara  
943 76 55 00

**Zuri Beltz margoak**

Barnealde eta kanpoaldean  
erreforma  
Pintura zerbitzu osoa  
Moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59  
Bergara

**GIZARTEA/** Abenduaren 2tik 15era bitartean, erakusketak, hitzaldiak, ikastaroak eta kontzertuak izango dira, beste gauza batzuen artean

# Bergarako Herri Mugimenduaren Hamabostaldia antolatu dute hamar taldek

MONIKA BELASTEGI

Herriko hainbat taldek Bergarako Herri Mugimenduaren Hamabostaldia antolatu dute. Hamabostaldia datorren astelehenean hasi, abenduaren 2an, eta hilaren 15era arte luzatuko da. Musika, hitzaldiak eta erakusketak izango dira, besteak beste.

Herriko hamar taldek antolatu dute Hamabostaldia: EHEK, AHT Gelditu! Elkarlanak, Emakume taldeak, Astindu aldizkariak, Komite Internazionalistek, Etxerat-ek, Bergarako Gazteek, Bai Euskal Herriari-k, Gazte Asanbladak eta Txapa irratia.

Hamabostaldiak hiru helburu nagusi ditu, Itsaso Mendizabal antolatzaileetako baten esanetan: "Batetik, Hamabostaldia antolatu dugun taldeon arteko komunikazioa bultzatzea eta sendotzea; eta, bestetik, taldeon arteko lankidetzaren areagotzea, eta talde bakoitzaren asmo eta aldarrikapenak kaleratzea; eta, hirugarrenik, pentsamendu eta helburu ezberdinak dituzten herritarren artean batzea antolatu ditugun ekitaldietan. Eta, zelan ez, herritarren animatu eta gonbidatzen ditugu parte hartzera".

Hiru helburu horiek betetzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte hamabost egunean barrena. Azken baten, "horrelako ekitaldiak, taldearen esparrura mugatu barik, harantzago" doazela. Eta "herritarrekiko komunikazioa lortzeko bidea ere badi-rela uste dugulako".

## IAZ HASITAKO LANKIDETZA

Hamar talde horiek iaz hasi ziren elkartzen eta batera lan egiten. Talde bakoitzak bere plangintzan zuenaren berri eman, eta egutegi antzekoa osatzen hasi ziren batzar horietan. Egutegi hori hamabostean behin kaleratzen zuten, eta taldeak epealdi horretarako antolatuta zituen ekitaldien berri ematen zuten. Gero, herriko tabernetan jartzen zituzten eskuragarri. Hasiera haieran ere gaur egungo helburu berbera zuen taldeen lankidetzak, Itsaso Mendizabalek gehitu duenez: "Taldea bakoitzaren aldarrikapenak kalera ateratzea eta ekitaldien bitartez herritarren artean aldarrikapen horietan parte hartzea zen gure helburua, eta, zelan ez, bide batez, herria bera piztea ere bai".

## BIDEA SENDOTUZ

Lehen urrats haien ondoren, jauzi handiagoa egin nahi izan dute, eta Hamabostaldia osatu. Horretarako, sendotu egin da lankidetzak, eta, gaur egun, asteroko maiztasunarekin batzartzen dira hamar taldeetako kideak.



Hamar taldek antolatu dute Hamabostaldia; lankidetzaren duela urtebete hasi zen, eta taldeen arteko komunikazioa bultzatzea eta sendotzea dute helburu, besteak beste.

*Hamar taldek,  
lankidetzan,  
antolatu dute  
Hamabostaldia*

*Aldarrikapenak  
kaleratzea da  
taldeen  
helburuetako bat*

*Hogei gora  
ekitaldi izango dira  
Hamabostaldian;  
askotarikoak*

## Hamabostaldiaren egitaraua

### ABENDUAK 2, astelehena

18:00: Malabare ikastaroa, gaztetxean  
20:00: Antolatzailei elkarrizketa, Txapan  
Erakusketa: Lurralde antolaketa, 9ra arte, Pol-Pol aretoan  
Erakusketa: Tortura, 9ra arte gaztetxean; orduetik aurrera Pol-Pol aretoan

### ABENDUAK 3, martitzena

18:00: Malabare ikastaroa, gaztetxean  
19:30: AHTren gaineko mahai ingurua, Pol-Pol aretoan.  
20:00: Antolatzailei elkarrizketa, Txapan

### ABENDUAK 4, eguaztena

20:00: Kurdistango kartzelen egoeraren gaineko hitzaldia eta bideo emanaldia  
20:00: Antolatzailei elkarrizketa, Txapan

### ABENDUAK 7, zapatua

22:30: Kontzertua, Ultracuerpos eta Elevators, gaztetxean

### ABENDUAK 8, domeka

20:00: Parodia: *Non dago gazteen etorkizuna?*, San Martin plazan

### ABENDUAK 9, astelehena

18:00: Irrati lantegia, Txapa irratian

### 19:30: AHTren gaineko hitzaldia

Erakusketa: Palestina. 15era arte, kultura etxean

### ABENDUAK 10, martitzena

18:00: Perkusio ikastaroa, gaztetxean  
19:30: Sahararen gaineko hitzaldia, kultura etxean

### ABENDUAK 11, eguaztena

18:00: Irrati ikastaroa, Txapa irratian  
20:00: 'Kixi'-ren *Topeka* lana, Novedadesen

### ABENDUAK 12, eguena

18:00: Perkusio ikastaroa, gaztetxean  
19:00: Palestinaren gaineko hitzaldia, bideoa eta diapositiba emanaldia, kultura etxean

### ABENDUAK 13, egubakoitza

22:30: Kubako ipuinak, gaztetxean

### ABENDUAK 14, zapatua

14:30: Bazkaria, gaztetxean  
Ondoren: Barruti magoa  
22:30: Kontzertua, Uko eta Jihad, gaztetxean

### ABENDUAK 15, domeka

18:00: Gaztaina-jana eta txokolate-jana, San Martin plazan

## HOGIETIK GORA EKITALDI

Bergarako Herri Mugimenduaren Hamabostaldian ekitaldi ugari izango dira, eta askotarikoak, gainera. Ikastaroak, esate baterako, hiru izango dira: Malabare ikastaroa, Irrati ikastaroa eta Perkusio ikastaroa, hain justu.

Horrez gain, hiru erakusketa ere izango dira, eta erakusketa bakoitzarekin hitzaldi bana edo mahai ingurua.

Lehenengo erakusketa lurralde antolaketaren gainekoa izango da. Pol-Pol aretoan egongo da ikusgai, abenduaren 2tik 9ra bitartean.

Bigarren erakusketa Palestinaren gainekoa izango da. Argazkiez osatutako erakusketa izango da, eta argazkiok idatzizko azalpena ere izango dute alboan. Erakusketa abenduaren 9an zabalduko dute eta 15era bitartean egongo da ikusgai, kultura etxean.

Hirugarren erakusketa torturaren gainekoa da. Besteak beste, torturak jasandako pertsonen testigantzak eta hainbat tortura motaren berri emango du erakusketa horrek. Abenduaren 2tik 9ra bitartean egongo da ikusgai, gaztetxean. Hortik aurrera, Pol-Pol aretoan eramango dute.

Horrez guztiaz gain, abenduaren 4an gaztetxean izango den bazkarirako txartelak salgai dardela aurreratu dute antolatzaileek. Gaztetxean edo Arrano tabernan eskura daitezke txartelak. Bestalde, ikastaroetan parte hartzeko, gaztetxean edo Arrano eman behar da izena.



AINTZANE IRIZAR

Eibarrerantz doazen autobusak irudiko geltokian hartu beharko dira. Arrasate alderakoak, orain artekoaren parean.

**HIRIGINTZA/** Etxeak eraikitzeak kendu dute orain artean egon den tokitik

## Autobus geltokia tokiz aldatu dute bi urterako

MONIKA BELASTEGI

**Ibargarai kalean egoten jarraituko du, lehengotik oso hurbil, baina norantzaren arabera bitan banatuta: Arrasate aldera joateko geltoki zaharraren parean egokitu dute geltoki berria. Eibar aldera joateko, berriz, biribil berriaren ondoan.**

Martitzena eta eguaztena bitartean egokitu dituzte autobus geltoki berriak: Arrasate aldera joateko lehengo geltokiaren parean, errepidearen beste aldean, hain zuzen ere; Eibar aldera joateko, berriz, biribil berria baino pixka bat aurrerago —Seminario aldera— jarri dute geltokia.

Bi geltoki berrietan eserlekuak jarriko dituzte, baina markesinarik ez. Izan ere, biak etxebizitza blokeetatik gertu daudenez, ataripeek egingo dute aterpe lana. Horrez gain, hainbat zutiko seinale jarriko dituzte autobus orduetegiarekin. Lan horiek Udaleko brigada zerbitzua eta Ibargarai etxebizitzak egiten ari diren eraikuntza enpresen artean egiten ari dira.

### GELTOKI ZAHARREAN ETXEBIZITZA GEHIAGO EGINGO DITUZTE

Orain arte geltokia egon den lekuan etxebizitza gehiago eraiki behar dituzte eta hori da geltokia lekuz mugitzeko arrazoia. Hala eta guztiz ere, kokapen berria behin behinekkoa da; bi

urte ingururako, hain justu ere. Kontua da Udaleko iturrien esanetan, hilabete gutxi barru hasiko direla etxebizitza horiek egiteko lana, eta eraiki ondoren behin betiko autobus geltokia ere hortxe jarriko dutela.

Behin betiko geltoki berri hori nolakoa izango den oraindik erabaki gabe dagoela aurreratu dute Udaleko iturriek. Oraingoz aukera bat baino gehiago aztertzen ari dira gehitu dute.

### BIRIBILA EGINGO DUTE ERTZAIN ETXE PAREKO BIDEGURUTZEAN

Behin betiko geltoki berriarekin lotuta, Ertzain etxearen pareko bidegurutzean biribila egingo dutela ere aurreratu dute Udaleko iturriek.

## Egoera larrian daudenendako laguntza handitu du Udalak

MONIKA BELASTEGI

**Jaurlaritzak Gizarte Larrialdietarako Laguntzei dagokien diru partida txikitu egin du. Horrek herriko hainbat onuradunengan eragin duen kaltea ikusita, neurri baten kargu egitea erabaki du Udalak.**

Eusko Jaurlaritzako Gizarte eta Lan Sailak ematen dituen Gizarte Larrialdietarako Laguntzen txikitzeak herriko hainbat familiarengan izan du eragina; egoera ekonomiko larrian dauden berrogeita hamar familia ingururengan, hain justu ere.

Joan den urtean, 108.500 euro inguruko dirulaguntza bideratu zuen Jaurlaritzak Bergarara (18.000.000 pezeta inguru), eta aurtengo ere laguntza bera jasoko zela uste zuten Udal arduradunek. Hala eta guztiz ere 36.000 euro

inguru gutxiago (6.000.000 pezeta inguru) iritsi dira.

### UDALA ERDIAREN KARGU

Irailean izan zuten horren berri, eta astelehenean, diru horren erdiaz kargu egitea erabaki zuten Udal arduradunek.

Udaleko Gobernu taldeak Bergarako Sozialista Abertzaleak taldearekin adostutako erabakia da hori. Sozialista Abertzaleek osoko bilkurara eramateko mozio bat ere prest zuten gai honen gainean Udalak erabakirik hartu ezean.

Udalak jarriko dituen 12.000 euro inguru horiek (hiru milioi pezeta inguru) egoera larrienean dauden familiei laguntzeko erabiliko dira, eta bereziki alokairuak ordaintzeko erabiliko da diru hori. Kredituak ordaintzen ari direnak kanpoan geratuko dira.

## Bergarakoa, euskal hizkuntza komunitate osasuntsuena

MONIKA BELASTEGI


**Bergara eta beste lau herritako euskararen egoera zein den aztertzeak ikerketa egin berri dute bi ikerlarik. Joan den astean aurkeztu zuten, Arrasaten. Ikerketaren arabera, Bergarakoa da osasuntsuena.**

Euskararen egoeraren gaineko azterketa egin berri dute Iñaki Martínez de Luna eta Ibon Usarralde ikerlariek. Gipuzkoako bost herritan egin dute ikerketa hori: Bergaran, Arrasaten, Andoainan, Hernanin eta Lasarten. Emaitzen berri joan den astean eman zuten, Arrasateko Monterron jauregian egindako aurkezpenean.

### BERGARAKO EUSKAL HIZKUNTZA KOMUNITATEA OSASUNTU

Emaitza horien arabera, Bergarakoa da osasuntsuen dagoen euskal hizkuntza komunitatea. Ikerketak dioenez, Bergaran gainerrakoa lau herrietan baino euskal hizkuntza komunitate kide kopuru altuagoa dago. Horrez gain, euskarak eta euskal komunitateak prestigio handiagoa du eta euskararekiko atxikimendua oso handia da.

Ikerketa hori egiteko Quebecen (Kanada) egindako azterketa bat hartu dute oinarritzat. Bertatik hurbilpen teorikoa jaso dute, eta hori Gipuzkoara moldatu dute. Euskal Herrian horrelako metodoa erabiltzen den lehenengo aldia izan da.



### KZGunea martxa betean ari da

Gaur astebete egingo du zabalik KZGunea, eta dagoeneko 60 lagun inguru eman du izena erabilera libreko gelarako. Bestalde, astelehenean, bi ikastaro hasiko dira. Biak Interneten gaineko oinarriko ikastaroak dira, eta, batez ere, etxekoandreek eman dute izena: guztira, 17k.

KZGunea doako zerbitzua da, eta izena eman nahi duen guztiarendako dago zabalik. Honako ordutegia du: astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

## Emakumeen aurkako indarkeria salatu du Udalak

MONIKA BELASTEGI

**Euskal udalerririk emakumezkoen indarkeriaren aurka izeneko Emakunderen adierazpenarekin bat egitea erabaki zuten udalbatzak, asteleheneko osoko bilkuran, alderdi guztien oniritziarekin.**

Osoko bilkura astelehenean izan zen, azaroak 25, eta bat egin zuen Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunarekin.

Bilkuran onartu zuten testuak hainbat adierazpen egiten ditu. Besteak beste, gaur egungo gizartearen dagoen arazorik larrie-

netakoa emakumezkoek jasaten duten era guztietako biolentzia dela dio. Bestalde, emakumezkoen aurkako biolentziak bizitza suntsitzeaz gain, emakumei kolektibo gisa bizitza publikoan parte hartzeko oztopoak jartzen dizkiela era adierazten du, eta era berean, herritartasun eskubideaz baliatzeko mugak ere bai.

Hori guztia dela eta, Udal politika aktiboa aurrera eramateko konpromisoa hartu zuen Bergarako Udalak: batetik, emakumezkoen aurkako biolentziari aurre hartu eta desagerrarazteko asmotan, eta, bestetik, eraso horien biktimei eskaintzen zaien laguntzak hobetzeko.



ARTXIBOA

Antzuolara Urkuluko ura eramateko azpiegitura prestatzen ari direla aprobetxatuko dute Bolurako azpiegitura ere egiteko.

**HIRIGINTZA/** Gaur, bonba eta metagailu sistema erabiltzen dute etxeetara ura eramateko

## Bolu urez hornitzeko, andela eta hoditeria jarriko dituzte

MONIKA BELASTEGI

Bolura ura eramateko proiektua aurkeztu berri du Gipuzkoako Ur Partzuergoak Bergarako Udalean. Besteak beste, goiko trenbidearen ibilbidea jarraituz sartuko dute beharrezkoa den hoditeria; ur-andela Ugabide baserriaren inguruan jarriko dute.

Bolu urez hornitzeko proiektuak Antzuolan du abiapuntua. Gipuzkoako Ur Partzuergoak Antzuolara Urkuluko ura eramateko proiektua egin, eta dagoeneko azpiegitura egiten ere hasi dira. Hori aprobetxatuz, Bergarako Udalak azpiegitura Boluraino luzatzeko eskaria egin zuen Gipuzkoako Ur Partzuergoan. Partzuergoak proiektua egin du, eta dagoeneko Udalean dago. Jose Antonio Etxeberria Hirigintza

zinegotziaren esanetan, desjabetzeak ere hasi dituzte, baina, bestalde, lanak noiz hasiko diren zehaztu barik dago.

### 1.755 HERRITARREK IGARRIKO DUTE AZPIEGITURA BERRIAREN ONURA

Gaur egun, Boluko auzuneko bizilagunek bonba eta metagailu bidezko sistema erabili beharra dute etxeetan ura izateko. Proiektua betetzean, berriz, erorketa askeko sistema izango dute, herriko gainerako auzoetan

moduan, eta horretarako, ur-andela Ugabide baserriaren inguruan jarriko dute.

Sistema berriaren onuradun 1.755 biztanle izango dira, Aranerrea (736 bizilagun), Iraburu (120 bizilagun), Bolu (351 bizilagun) eta Koldo Eleizalde (548 bizilagun) kaleetakoak, hain justu ere. Gainera, oraingo bonba eta metagailu sistemagatik ordaindu behar izaten dutena aurreztuko dute.

### TRENBIDE ZAHARRAREN IBILBIDEA JARRAITUZ

Bestalde, azpiegiturarendako aurreikusitako trazaketak trenbide zaharreko ibilbidea erabiliko du, neurri handi baten, eta, gutxi gorabehera, kilometro bat luze izango da. Hala eta guztiz ere, zenbait gunetan mendian gorago egingo du hoditeriaren trazaketak.

*Sistema berriaren onuradun Bolu auzuneko 1.755 bizilagun izango dira*

## LABUR

### Bihar, zapatua, Donostian izango den manifestaziorako autobusa antolatu dute

*Demokrazia Euskal Herriarentzat. Autodeterminazioa orain lelopean, bihar, zapatua, Donostian izango den manifestaziorako autobusa irtengo da herritik. Autobusa 15:30ean abiatuko da, Fraiskozuritik, eta izena Pol-Pol eta Arrano tabernetan eman daiteke.*

Zenbait gizarte eragilek eta banakok egin dute manifestaziorako deialdia, eta Euskal Herriak jasaten dituen erasoen aurka-ko beste ekimen bat bezala ulertzen dute.

### Gipuzkoako Afagi elkarteak nork bere laguntzarako taldeei ekingo die berriro

Afagi elkarteak, Alzheimer gaixoen senitartekoen elkarteak, senitartekoei zuzendutako nork bere laguntzarako taldeen egitasmoari ekin dio berriro. Laguntza talde horiek debagoiendarrendako dira, eta batzarrak Arrasateko egoitzan egiten dituzte. Interesatuak 665 71 18 37 telefonora dei dezakete.



### Hasi dira Gabonetako argiak jartzen

Astean barrena, herriko kaleetan Gabonetako argiak jartzen aritu dira. Aurten, 18.500 euro inguruko gastua onartu du Udalak Gabonetako argiterian. Abenduaren 13an piztuko dituzte eta urtarrilaren 7an, berriz, kendu.

Gabonetako argiak honako kaleetan jarriko dituzte: San Martin plazan, Bidekurutzeta kalean, Espoloian, San Pedro kalean, Artekalean, Arruriaga kalean, Fraiskozuri plazan eta herriko sarreretan. Horrez gain, auzoak ere apaingotuko dituzte: Osintxu, Elorregi, Ubera eta Elosu auzoak, hain justu ere.



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com



## KARTELA IKUSGAI INAUSKETAREN ONDOREN

**U**dal brigadako langileak inausketak egiten izan ditugu azken asteotan. Landareak eta arbolak ebakitzeko sasoi izaten da, sendoago has daitezten. Sasi artean ezkutatuta egon diren beste hainbat gauzarekin jabetzeko ere primeran etortzen da inausketa, argazkian ikusten den zirkulazio seinalearekin gertatu den moduan. Ozaetako sarreran saihebidetan dagoen seinale hori estalita egon da denbora luzean, eta duela hilabete batzuk herritar batzuen kexa jaso genuen *Txaloak eta txistuak* izeneko sailean. Hain zuzen ere, herritarrak kexu ziren seinalea ez zelako ikusten. Orain, inausketa lanak egin eta gero, auto gidariek badute seinalea ikusteko aukera. Seinale horrek Gasteizerako noranzkoa eta Ozaetarako sarrera markatzen ditu. Ea seinalea sasi artean berriro ez den ezkututzen...


## AITOR VICENTE GARAILE DARDO TXAPELKETAN

**A**itor Vicentek irabazi zuen, domekan, Nahikari tabernan jokaturako Dardo Txapelketa. Hamabi lagun aritu ziren lehia txapelketaren IV. aldian, eta, Vicenterekin batera, Txiki Muñoz eta Mikel Gutiérrez iritsi ziren finalera. Esan bezala, Aitor Vicente izan zen trebeena, eta hark eraman zuen txapeldunari zegokion Gabonetako saskia. Txiki Muñozek (eskuman), berriz, urdaiazpikoa eraman zuen etxera.



## ZABALA

JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

## Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tf. 943 76 56 62

Arotz lanetan behar duzun guztia



**AZKARATE**  
AROSZTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3. BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19.  
ARETXABALETA Tel.: 943 77 01 24

## ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behe.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA



## OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



San Pedro 21 Ibargarai 44-46  
BERGARA BERGARA  
943 76 20 49 943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

## Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA

## IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak  
Moketa eta sintasola Harea zorrotada  
Iztuku esponjatua Iztuku faltua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32



MINGAINARITIRAKA



Elvira Otaño

BERGARA KAFE PENTSIONekoa

Duela bost urtetik Bergara Kafe Pentsioen lanean dihardu Elvirak (43 urte). Aurretik Osintxuko Paola eta Angiozarko Taberna Zaharra jabetxeetan izan zen lanean. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba dituzte, Ane eta Jon.

- Zenbat kafe zerbitzatzen dituzue egunero?  
Asko: 170etik gora izango dira.
- Laneko gauzarik onena eta txarrena?  
Onena, lan entretenigarria izatea, jendearekin tratua edukitzea; txarrena, oso goiz jaiki behar izatea, bostak aldera.
- Zure lanerako beharrezko ezaugarri bat?  
Pazientzia eta jendea zelan tratatu jakitea, atsegina izatea.
- Lanean, irratia, musika ala telebista?  
Goizean goiz, telebistako albistegiak. Gero, musika jartzen dugu.
- Zein zeinutakoa zara? Horoskopoa irakurtzen duzu?  
Gemini zeinukoa naiz, baina ez dut horoskoporik irakurtzen.
- Gustuko jantzi bat? Eta kolore bat?  
Prakak; eta kolorea, beltza.
- Perfume bat?  
Allure kolonia erabiltzen dut.
- Gizon batengan zertaz ohartzen zara lehenbizi?  
Dagoeneko ez diet erreparatzen gizona...
- Umore onekoa zara? Zerekin egiten duzu barre?  
Bai, umore onekoa naiz, eta erraz barre egiten dut, edozerekin.
- Lagunengan gehien baloratzen duzuna?  
Egiazaletasuna.
- Film bat/Liburu bat/Kantari bat?  
Pretty woman/ Amaia y los vascones en siglo VIII/Juan Pardo.
- Gabonetako loterian jokatzeko duzu?  
Bai. Loteria saltzen dugu, eta 160 euro inguru jokatuko ditut.
- Sari nagusia irabaziz gero?  
Zuloak tapatu. Eta diru asko irabaztekoan, Ibargarain terrazadun etxe bat erosi nuke gustura.
- Eta Olentzerori zer eskatuko diozu?  
Opariak izugarri atsegin ditut, berdin dio zer.
- Aste bukaerarako plan on bat?  
Gizonarekin eta seme-alabekin Errioxako kanpinera, Navarretara, joatea. Udaberri-uda partean bada, hobeto.
- Bidaia bat nora egingo zenuke?  
Karibera, eguzkitara. Baina beldurra diot abioiari.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA/ Maria Fernández

GREZIA / 2001ean, urrian

Joan den urtean, urrian, joan ginen Greziara koardrilako hiru lagun: Oihana, Enara eta hirurok. Bederatzi egun genituen bidaia egiteko, eta abioi txartela besterik ez genuen erosi; Grezian gure kontura ibili ginen, han lagunak genituen-eta. Hegaldia prezio onean atera zitzaigun: Bilbotik irten, eta Frankfurte-tik Atenasera heldu ginen. Greziako hiriburuan aste bukaera osoa igaro genuen; oso hiri interesgarria iruditu zitzaigun, zaratsua (zirkulazioa ikaragarria da) eta zikina, beharbada, baina historiaz betea. Milioi bat biztanle inguruko hiria da, eta gure lagun Inok (Enarak Amsterdamen ezagutu zuen, Erasmusen bitartez), haren mutil-lagun Aresek eta haien lagunek toki esanguratsuenak erakutsi zizkiguten: Partenoia eta Akropolis, esaterako. Xarma berezia dauka hiri hark, zalantza barik. Kaleko giroarekin ere erabat gozatu genuen, oso hiri bizia delako. Lagunek musika *renbetika*-ko emanaldi batera ere eramantuzten taberna batera, eta ederra izan zen. Protesta eta maitasun kantuak entzuteko aukera izan genuen, eta giro berezia sortu zen. Greziarrak oso jatorrak eta alaiak dira, eta, Mediterraneoko beste herrialde askotan gertatzen denez, eskuzabalik hartzen dituzte kanpotarrak.




*“Atenas zikina eta zaratsua da, baina xarma berezia daukan hiria da, historiaz beteta dago”*

*“Hydra eta Spetses uharteak bisitatu genituen, portu ederrak eta ohiko etxe zuriak dituztenak”*

Bestalde, Greziako uharteak bisitatzeko gure hasierako asmoa, baina urria ez da sasoirik aproposena. Orduan, gure planak aldatu, eta hegoaldera jo genuen, Peloponesora, autobusez, lau bat orduko bidaian. Bidaian Lonely Planeteko gida erabili genuen, eta oso ondo dago, primeran etorri zitzaigun hango informazioa. Kostaldeko herri txiki baten, Napflion, ostatu hartu genuen, eta handik aurrera errentan hartutako auto baten hainbat irteera egin genituen; besteak beste, Hydra eta Spetses uharteak bisitatu genituen. Greziako beste uharte batzuetan bezala, portu ederrak eta ohiko etxe zuriak dituzte, eta, bitxikeria moduan, Hydrasen autoan ibiltzea debekatuta dago: asto gainean edo txalupa-taxietan ibili behar da han. Napflionetik 500 bat kilometrora dagoen Erdi Aroko Monemvasia herria ere ikustekoa da. Kostaldetik igarotzen ziren errepideak ez ziren bateren onak, baina paisaia zoragarria da. Espartaraino ere iritsi

ginen: hiri komertziala da Esparta, baina ez du aparteko ezer. Epidauroko anfiteatroak, aldiz, erabat liluratu gintuen. Greziako janariarekin ere beste horrenbeste gertatu zitzaigun.

EDU MENDIBIL




Oihana Ezenarro, Maria Fernández eta Enara Ruiz de Egiño, Atenasko Partenoian ateratako argazkian.



**Matxiategi  
Elektragintza  
S.L.**

ELEKTRIZITATE MATERIALEN  
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.



**JAUJA  
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**INFERNUKUA  
TABERNA**

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49



Javier Moreno, Javier Ibarra eta Aitor Eraña, domekako proban, Kontxako pasealekuaren parean.



Maratoiaren ostean, 56 lagun bildu ziren Bixente Pagaldairi egindako bazkari omenaldian.

## ATLETISMOA

# Herriko hogeikorrikalarik amaitu zuten, domekan, Donostiako Maratoia

Roberto Zurro izan zen bergarar onena, bi ordu eta 37 minutuko denborarekin, eta Bixente Pagaldaik 25. aldiz egin zuen Donostiako Maratoia

E.M.

**Bergarako 20 korrikalarik amaitu zuten, domekan, Donostiako Maratoia. Iaz bezala, Roberto Zurro izan zen herriko onena, bi ordu, 37 minutu eta 58 segundorekin. Bixente Pagaldai protagonista nagusietako bat izan genuen, 25. aldiz amaitu zuelako proba.**

Guztira, 2.000 partaide izan ziren domekan jokaturako proban, eta Donostiako Maratoiaren 25. urtemugan Cherigat kenyarrak probako errekorra hautsi zuen, bi ordu, bederatzi minutu eta 34 segundoko denborarekin. Maratoi proban Espainiako estatuan inoiz lortu den markarik onena egin zuen afrikarrak. Lasterke-

ta azkarra izan zen, eta kenyarrak jaun eta jabe izan ziren: lehen zortziak herrialde hartakoak izan ziren, eta emakumezkoetan ere Margaret Atudonyang kenyarrak irabazi zuen (2:34:57).

### ZURRO, HERRIKO ONENA

Bergarako korrikalariek lan bikaina egin zuten. Aurten ere Roberto Zurro izan zen onena. Iazko marka hobetu zuen arren, sailkapenean atzera egin zuen: iaz, 40.a izan zen (2:38:18) eta aurten, denbora hobearrekin, 59.a izan zen helmugan.

Herriko beste lau korrikalari hiru ordutik jaisteko gauza izan ziren: Javier García (2:54), Javier Moreno (2:55), eta Javier Ibarra eta Aitor Eraña (bier ere denbora berarekin: 2:57).

Bixente Pagaldaik 25. aldiz amaitu zuen Donostiako Maratoia, probaren zilarrezko ezteietan. Angiozartarrak 3:21:53 egin zuen, eta proba amaieran nahiko sufritu zuela esan zuen. Hura eta Zubizarreta pasaiatarra izan dira aldi guztietan parte hartu duten bakarrak. Probaren ostean, txapel bana jaso zuten, podiumean, Anoetan bildutakoen txalo artean.

Donostiatik bueltan, 56 lagun bildu ziren Angiozarko Ortzi jate-txean egindako bazkari omenaldian. Giro ederra izan zen han, eta Bixentek txapela, trofeoa, loreak eta beste hainbat opari jaso zituen lagun eta familiarrekin. Datorren urtean Maratoia berriro ere egiteko geratu azaldu zen Bixente.

### Bergararrak Donostiako maratoian

Postua	Izen-abizenak	Denbora
59	Roberto Zurro Usabiaga	02:37:58
228	Javier García Alberdi	02:54:29
252	Javier Moreno Castelo	02:55:07
323	Javier Ibarra Moñux	02:57:33
324	Aitor Eraña Arroiabe	02:57:33
433	Joxean Kerexeta Lizarazu	03:02:09
501	Iban Agirrebeña Oteo	03:05:38
515	Miguel Angel Aranes Usandizaga	03:06:29
573	Joxu Arana Oregi	03:09:23
685	Joxe Inazio Balentziaga Larrañaga	03:15:14
759	Jesus Díaz Roman	03:17:24
853	Bixente Pagaldai Garitano	03:21:53
1.016	Iker Beistegi Ugarte	03:28:43
1.027	Iñaki Mujika Goikoetxea	03:29:27
1.213	Gorka Arrieta Etxeberria	03:41:44
1.311	Jose Ignacio Albusua Iraolaqoitia	03:48:46
1.366	Markos Pérez Altuna	03:54:41
1.391	Josean Larrion Lopez De Dicastillo	03:57:52
1.492	Manu Larrea Arana	04:21:18
1.495	Roman Laskurain Aiaitui	04:23:09

## BKEko kadete neskak, Kontxako Futbol Txapelketan

E.M.

Bergara KEko nesken futbol talde batek Kontxako Hondartza Txapelketan dihardu. Jose Luis Beitiak eta Felix Barrocalek entrenatzen duten taldeak orain arte jokaturako hiru partiduak galdu ditu, Eibar (2-1), Santo Tomas Lizeoa (6-0) eta Aldapeta (4-2) taldeen aurka, hain zuzen.

Txapelketan 14 eta 18 urte bitarteko neskak ari dira, eta Bergarako talderik gazteenetakoa da. Izan ere, Bergarako ahalegina egin zuen Debagoienan kadete mailako txapelketa abian jartzeko. Talde nahikorik ez zegoenez, Kontxako Hondartza Txapelketan parte

hartzea erabaki zuten. Hamabostean behin joaten dira Donostiara jokatzera, gurasoen laguntzarekin. Hamahiru jokalaririk dira, eta zortzi irten daitezke hasieratik. Zapatuan, Aldapetaren kontra, Leire Urgoitiak egin zituen bi golak. Astean bi egunez entrenatzen dira.

### HARROBI LANA EGITEA

Beitiaren iritziz, "nahiko zaila da hondartzan jokatzeko. Badakigu zaila izango dugula partiduren bat irabazteko, baina gure helburua nesken talde nagusiarako harrobi lana egitea da. Neskak oso gustura ari dira, eta, horren adierazle, uretara sartu izan dira orain arteko partiduen ostean". Ez da gutxi.



BKEko nesken taldeak 4-2 galdu zuen, zapatuan, Aldapetaren aurka, Kontxan.

## Nesken eskubaloiko talde biek zapatuan jokatuko dute

E.M.

**Senior eta kadete mailetako nesken eskubaloiko taldeak Labegaraietako kiroldegian jokatuko dute, bihar, zapatua, 16:30ean. Senior taldeak ez du oraindik partidurik irabazi aurtengo Liga Txapelketan.**

Xabier Lijók eta Josu Zeziagak zuzentzen duten taldeak bost partidu jokatuko ditu Ligan, eta bostak galdu egin ditu. Zapatuan, Ermuan galdu zuten, 26-14. Aurreko partiduetan gol bakar bategatik galdu zuten, baina zapatuan, ermuarrak uste baino errazago nagusitu zitzaizen bergararrei. Mahoneroak 9-8 gerturatu ziren, baina bigarren zatian fisikoki talde indartsuagoa dela azaldu zuten ermuarrek, eta 8-0ko partziala lortu ondoren, Bergarak ez zuten erreakzionatzerik izan.

Bergararrek partidu garrantzitsua jokatuko dute, bihar, zapatua, 18:00etan. Aurrean Bilboko Salesianos taldea izango dute. Bergararrek bezala, bilbotarrek ere jokatutako partidu guztiak

galdu dituzte. Lijó entrenatzaileak adierazi digu bihar lehen partidua irabazteko aukera izan dezaketela. Era berean, fisikoki taldeak hobetu beharra daukela aitortu du entrenatzaileak.

Kadete nesken taldeak, berriz, Legazpiren aurka jokatuko du, bihar, zapatua, 16:30ean. Azken jardunaldian lehen partidua irabazi zuen Oihana Garmendiaren taldeak, Urnietan (16-25). Gainerako taldeak etxetik kanpoko jokatuko dute. Aurreko zapatuan, senior mutilek Sestaori irabazi zioten (30-25) eta gazte mutilek Legazpin irabazi zuten (16-23).

### SASKIBALOI PARTIDU BAT, BIHAR

Lehen mailako kadete saskibaloiko taldeak Gros hartuko du, bihar, zapatua, kiroldegian, 12:15ean.

Azken jardunaldian honako emaitzak lortu zituzten saskibaloiko taldeak: seniorrak 52-67 galdu zuen Altzaren aurka, Bergaran; lehen kadeteak Easoren aurka galdu zuen, Donostian (67-59); eta bigarren mailako kadeteak Labegaraietan galdu zuen, Zarautz taldearen aurka (55-59).



ARTXIBOA

Andoni Azkargortaren jokalariek partidu ona egin zuten, zapatuan, eta merezimendu osoz irabazi zieten debarrei.

## FUTBOLA

# Bigarren erregionaleko taldeak 4-2 irabazi zion Amaiak Bat liderrari

Zapatuko garaipenaren ostean, bergararrak laugarren dira sailkapenean

E.M.

**Bergara KEko bigarren erregionaleko futbol taldeak mendean hartu zuen Amaiak Bat liderra, zapatuan, Ipintzan. Andoni Azkargortaren jokalariek 4-2 irabazi zieten debarrei; partidu ona egin zuten.**

Azken bi partiduak etxetik kanpo galdu eta gero, Bergarak garaipen garrantzitsua erdietsi zuen, zapatuan, lider zen Amaiak Bat taldearen aurka. Partiduen lehen ordu erdia jokatuko orduko, Andoni Azkargortaren taldea 3-0 zen aurretik, Mikel Oterok (2) eta Andoni Arbuluk egindako golei esker. Etxekoan azken gola,

4-1ekoa, Martin Zaitegik egin zuen. Azkargorta pozik azaldu zen taldeak egindako jokoarekin: "Goian presioa eginez eta baloiak errekuperatuz jokatuko dugu; azken bi partiduetan Gazteak eta Zumaiako taldeen aurka egin ez genuena, hain zuzen ere. Taldea nik nahi dudana estilora hurbildu da, eta dena ondo atera zaigu Amaiak Baten kontra". Esan beharra dago preferente taldearekin entrenatzen ari diren Manolo Ortiz, Gorka Martínez, Aritz Agirre eta Ander Elkorobereibar jokalariek bigarren erregionalekin jokatuko dutela.

Bergara laugarren da sailkapenean, 19 punturekin, eta, bihar, zapatua, Aretxabaletari bisita

egingo dio, Ibarra, 15:30ean. Azken jardunaldiaren ostean, aretxabaletarrak dira lidertzan, 21 punturekin. Azkargortaren esanetan, "Ligako talderik indartsuenetako bat da Aretxabaleta, eta gogor borrokatu beharko dugu punturen bat lortzeko".

### HIRU PARTIDU BERGARAN

Azkeneko jardunaldian Arenasen 1-2 irabazi ondoren, Euskal Ligan ari den gazte taldeak Antiguoko hartuko du, bihar, zapatua, Agorrosinen, 15:30ean; bigarren mailako kadeteek Sorluzeren aurka jokatuko dute, Ipintzan, 17:15ean; eta domekan, Bergarako eta Aretxabaletako lehen kadete taldeen arteko lehia, 11:30ean.



ARTXIBOA

Senior nesken eskubaloiko taldeak ez du partidurik irabazi oraindik.

## LABEGARAIETAKO FUTBITOXAPELKETA

### ASTÉ BUKAERAKO PARTIDUAK

#### ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Agirrebeña-Dedo Pafarru. **La Quinta**  
10:30: Canalejas-La Quinta. **Agirrebeña**  
19:00: Etengabe-Bayer. **Pagomendi**  
20:00: Pagomendi-Ganbara. **Bayer**

#### DOMEKAN, BARRUAN

10:30: Artusamak-Bildurbarek. **Pirulotarrak**  
11:30: Pirulotarrak-A Ze Flaxa. **Fac**  
12:30: Errotagain-Fac. **A Ze Flaxa**  
16:00: Getokuak-TNT. **Irubide**  
17:00: Irubide-K.Piperrak. **Getokuak**

#### ZAPATUAN, KANPOAN

16:00: Argandolas-Bedarreta. **Antolaketa**

# Muguruza-Gutiérrez bikoteak final-erdia jokatuko du, gaur, frontoian

E.M.

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketaren barruan, Muguruza-Gutiérrez lehen mailako senior bikoteak Eibarko bikote baten aurka finalerdia jokatuko du, gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan. Jaialdia 19:15ean hasiko da,

eta aurretik beste hiru partidu izango dira: lehenbizi, Gabonetako Txapelketako bi partidu; eta, horien ondoren, Gipuzkoako Txapelketako beste bat, infantil mailako Bergarako bi taldeek elkarren aurka jokatuko dutena.

Ander Muguruzak eta Igor Gutiérrezrek Eibarrekin jokatzen

duen Gorka Martin bergararra eta Jon Bengoetxea izango dituzte aurrean. Beste final erdia Amezketako eta Lizartzako bikoteek jokatuko dute. Finala abenduaren 21ean jokatuko da, Oñatin.

Bestalde, Gabonetako Txapelketako partiduak jokatuko dira, domekan, 11:00etan.

**Babeslea**

SPORTLAND  
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

Udaletxeko areto nagusian egingo dute emanaldia, 19:30ean

## Bihar, herriko Zura haize-boskotearen emanaldia

MONIKA BELASTEGI

Bergarako Zura haize-boskoteak emanaldia egingo du, bihar, zapatua, udaletxeko areto nagusian, 19:30ean. Hamaika lanez osatutako egitaraua egingo dute; batez ere, XX. mendeko autoreetan oinarrituta. Hauxe da taldeak egingo duen lehen emanaldia.

Lau bergararrek eta antzuolar eta arrasatear banak osatzen dute Zura haize-boskotea: Zigor Martínezek (klarinetea), Iñaki Agirreurretak (fagota), Jose Migel Etxeberriak (flauta), Jesus Mari Arriaranek (oboea) eta Alaitz Zabalok (flauta), hain zuzen ere.

Talde nahiko berria da; otsailan ekin zieten entseguei, eta zapatuan udaletxeko areto nagusian egingo duten emanaldia da taldeak eskainiko duen lehenengo. Baina nahiz eta talde gisa ibilbide oso luzerik izan ez, eskarmentu handiko musikariak dira. Guztiek daramatzate hainbat urte Udala Musika Bandan eta Bergarako Orkestra Sinfonikoan.

### XX. MENDEKO MUSIKA, BATEZ ERE

Jesus Mari Arriaran taldeko kide-etako batek azaldu duenez, "musika modernoa jorrazteko eratu dugu taldea. XX. mendeko musika egiteko, batez ere; bandan edota orkestran gutxiago lantzen direnak egiteko. Musika klasiakoaz aparte beste musika batzuk ere lantzeko bidea bilatu dugu boskotea osatzeko orduan".

Bihar, zapatua, egingo duten emanaldia horren adibide da. Hamaika lan egingo dituzte; modernoak, gehienak XX. mendekoak, baina Jesus Mari Arriaranek gehitu duenez, "errazak entzuteko, oso melodikoak dira-eta".



ZURA HAIZE BOSKOTEA

Goian, Arriaran eta Etxeberria; erdian, Zabalo; behean, Martínez eta Agirreurreta.

## Emanaldiaren egitaraua

Quinteto de viento I	.....	Fermin Gurmindo
Lamiak	.....	Joaquin Silguero
Le vol du Bourdon	.....	Rimsky-Korsakov
Le petite negre	.....	Claude Debussy
Bordako atalarrian	.....	Udalaitz
Oñazek	.....	Udalaitz
Aberri maitiari	.....	Udalaitz
Artzai gaztearen oihuak	.....	Udalaitz
Bereterretxen khantoria	.....	Udalaitz
Antiche danze ungheresi	.....	Ferenc Farkas
Akelarre en el Gorbea	.....	Luis de Aramburu

## Pro-ismo Cero taldearen 'El Juglarón', gaur, gaztetxean

MONIKA BELASTEGI

Gasteizko Pro-ismo Cero taldeak El Juglarón lana egingo du gaur, egubakoitza, 22:30ean, gaztetxean. León Felipe poeta eta antzerkigileak erbestean zegoela idatzi zuen *El Juglarón*. Oso idazlan luzea da eta bere baitan, Ertaroko juglare batek batutako hamaika antzezlan txiki jasotzen ditu. Guztietan gizartea eta gizakia aztertzen ditu eta horrez gain kritika zorrotz eta garbia ere egiten die.

Pro-ismo Cero taldeak hamaika antzezlan txiki horietako hiru moldatu ditu, eta horiek eskainiko ditu gaur, egubakoitza, gaztetxean. Hirurek gai eta tonu desberdina dute: alde batetik, *La Justicia* egingo dute, eta bertan *El Quijote* eleberraren pasarte barregarria kontatuko du. Beste aldetik, *La Princesa doña Gauda* eskainiko dute, aspaldiko erromantze bortiz eta dramatikoak, eta, azkenik, *La Mordida* egingo du Gasteizko taldeak, ipuin inuxentea.

## Taun-Taun taldea, Argentinan, 'Kont Arte' antzerki lanarekin

MONIKA BELASTEGI

Taun-Taun antzerki taldea Argentinara abiatuko da, datorren astean; Rosariora, hain justu ere. Abenduaren 7tik 13ra bitartean egingo den *Experimenta 5 teatro* izeneko nazioarteko taldeen topaketan hartuko dute parte.

Topaketa hori El Rayo Misterioso antzerki taldeak antolatuko du, eta helburua da hainbat herrialdeetako antzerki talde

berritzaileen arteko elkartrukea bultzatzea.

Taun-Taun taldeak *Kont Arte* lana jokatu du Rosarion. Ikusizun bisuala da, Joan Brossaren unibertso poetikoan oinarritua. 2001. urtean aurkeztu zuten, *Fira de teatre de Tàrraga*-n, eta Bergaran ere antzeztu zuten, duela hilabete batzuk.

Emanaldiaz gain, darabilen teknikaren gaineko lantegia ere egingo du Bergarako taldeak.

## LABUR

### Euskal Herriko aduanen eta kontrabandoaren gaineko hitzaldia martitzenean, Migel Altunan

Agiritegiak antolatutako historiaren gaineko berbaldi sortako laugarrena martitzenean izango da, abenduak 3, 19:30ean, Migel Altunan.

Berbaldiaren gaia da: *Euskal Herriko aduanetako sistema eta kontrabandoaren arazoa XVII-XVIII. mendeetan*. Hizlaria Alberto Angulo Historian katedraduna izango da. Garai hartan politikak eta garapen ekonomikoak aduanetan zuten eragina jorratu du, baita kontrabandoa dela-eta sortutako borrokak ere.

## 'Egileor'-i omenaldi beroa egin zioten

Egubakoitzean egin zioten omenaldia Jesus Alberdi 'Egileor' bertsolariari. 400 lagun inguru batu ziren Novedadesen eta Udaleko, Jarduneko eta San Joxepeko opariak jaso zituen, besteak beste.

Ondoren puntako bertsolarien saioa entzuteko aukera ere izan zen. Astean, bertso bat bidali digu erredakziora Andres Gabilondo bertsolariak Arrasatetik. Elosuko Agerre baserrikoa da Andres eta txikitatik 'Egileor'-en laguna. Ezin izan zen omenaldira joan egubakoitzean, eta ondoko bertsoa egin nahi izan dio. /M.B.

### JESUS ALBERDIRI

Hire omenan berri entzun nuenian, poz bat somatu nian nere barrenian.

Hortarako jaioa nola haizan berez, arpegi triste asko jarri duk hik barrez.

Berrogeita hamar urte Euskadin kantatzen, nahigabeak gordeta umorea saltzen.

Frutuak eman dizkik egin duan lanak jarrai aurrera Jesus eta zorionak.





Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratutako aldizkaria. 4. alia

## IEPA LAGUNOK!

Zer moduz doia ikasturte hasieria? Gogotsu zabizte edo aldapa gora egin da? Ba gu hemen gatoz ekainian agindutako moduan (agindutako bezala ez e!!!), berandutuago bada be. Aurreko alietan bezala, jolasak, liburu-aholkua, ipuiña eta abar topauko dittuzue, bai zuek eta bai zuen aitta-amak egin deizuen. Bai, bai... aittak eta amak be egin bihar dittue ariketak... e!! Eta, betiko moduan, akordau eskoletan banatuko dotsuela ariketen erantzunak jarri eta sari polit batzuk lortzeko orrixak. Horrek orrixok eskolan bertan entregatu bihar dittuzue.

## HOBETZEKUAK

### 1. BEZALA / MODUA

Bixak modua adierazten badabe be, ez dira berdin erabiltzen. *Modu* berbia izena da baiña *bezala* ez. *Modu* berbiak, izena danez, izenlagunak (-ko eta -ren bukaeria daukenak) hartu leizke baiña *bezala*-k ez.

Hortaz, ondorengo esaldixetan ikusi leike *moduan* eta *bezala*-ren erabillera zuzena zein dan:

- Zure moduan egingo dot .  
Zuk bezala egingo dot (~~Zure-bezala...~~)
- Nire moduan jantzi zara.  
Ni bezala jantzi zara (~~Nire-bezala...~~)
- Betiko moduan dabil.  
Beti bezala dabil (~~Betiko-bezala...~~)
- Hemengo moduan egin!.  
Hemen bezala egin! (~~Hemengo-bezala...~~)

Nahasketaren arrazoa: Bergaran oraintsu arte ez da *bezala* erabilli izan eta erabiltzen hasi garenian *moduan* bezala erabiltzen dala pentsatu dogu.

### 2. JANTZI

A. Jantzi aditzak Nor edo Nor-Nork laguntzailliak eskatzen ditu:

- San Fermiñetarako zuriz eta gorritz jantziko naiz. Praka eta kamiseta zurixekin, gerrikua eta zapi gorrixa jantziko dittut (~~jantziko-naiz~~).

Hortaz, zezer jantzen dogunean, Nor-Nork formak erabilli beharko dittugu.

B. Erropia "ipini" eta "jantzi" egitten bada be,

- Ipini: armaixuan, ohe gainian...
- Jantzi: gorputzian, soiñean
- Praka bakeruak eta kamisetia jantziko dittuzu? (~~ipiniko-dituzu~~)



## KOMIKIXA

Peio!  
Ipurdia itsasuaren moduan daukak.

Zergatik?  
jantzitta dauzkaten prakak urdiñak direlako.

Ez memelo.  
Busti-bustixak dauzkaalako.



# HASI DADILLA FUNTZIÑUA!

Etxeko danok elkarrekin egitteko ariketatxo bat proposatuko dotsuegu. Bi lantxo egin bihar dittuzue: alde batetik, azpiko testua irakurri eta zenbaki bakoitzian falta dana asmatu eta, bestetik, onduan daren irudixak osatu. Hutsunietan, batzuetan, esaldixaren aditz laguntzaillia falta da eta beste batzuetan marrazkixaren laguntzaz asmatu ahal izango dozuen berba bat. Zeiñek irakurriko dau testua? Zeiñek osatuko dittu marrazkixak? Txandan egin zeinkie. Animo!



Maddi eta Iker jolasian dabitz. Gaur zirku bihurtu dabe gelia. Horretarako, erdixan zeren gauza danak zokoratu egin dittuzte. Gelako alfonbria izango da zirkuko pistia, eta ohia, publikoarendako harmaillak. Orain, bakar-bakarrik mozorrotzia falta jakue. Iker paillazo jantziko .....1.....; Maddi, berriz, mago. Mozorrua gertatzia ez da hain erraza izan. Han-hemenka billatu eta hainbat gauza hartu dabe, beren mozorruak osatu arte. Ikerrek amaren praka motz .....2.....-dunak jantzi dittu eta aittittaren tirantiekin lotu dittu. Bestalde, sudurrá gorri-gorri margotu .....3..... Mozorrua bihar dan moduan osatzeko, hanketan osabaren .....4..... handixak jantzi dittu. Eta buruan; ileorde (peluka) urdina jantzi .....5..... Maddik oso mozorro ikusgarria osatu dau: gimnasia erabiltzen daben elastiko urdiña jantzi .....6....., hanketan amaren takoidun .....7..... jantzi dittu. Mago danak izaten dabe euren .....8....., horretarako Maddik mahai-oihala jantzi dau bizkarrian. Kapelia eta makillia izan dira lortzeko zailenak, azkenian kartulinaz egindako konua jantzi .....9....., eta pintzel luzia makilla bihurtu dau. Dotore-dotore dare bixak zirkuko pistaren erdixan: hasi dadilla emankizuna!

Erantzunak

1..... 2..... 3..... 4..... 5..... 6..... 7..... 8..... 9.....

## MAGIA JOKUA

SORTU ZEURE DIRUA!

**1.** Hartu bi txanpon handi, atzamar lodixaren eta erakusliaren artian, irudixan agertzen dan moduan.

**2.** Igurtzi bi txanponak elkarren artian atzera-aurrera. Irudixan ikusten da zela egin leikien. Igurtzi txanponak gero eta azkarrago eta, bittartian, begiratu zuzen-zuzenian txanponei. Nondik irten ote dau hirugarren txanponak? "Hondar-irudixa" deittutako fenomenuaren ondorioxoz, zure begixak eta zure buruak uste dabe dagoeneko beste posiziño batera pasau dan gauza bat onddio lehengo tokixan ikusten dabela.



# TXIMIÑUEN MODUAN

Ariketatxo hau be etxeke danon artian egitteko: hutsunietan falta diren hitzak zuzen ipintzen ahalegindu bihar dozue eta beheko taulan daren irudixak lotu bihar dittuzue.

1. .... bezalako begi haundixak dauzka Josetxok.
2. .... moduan egitten dabe aurrera traineruak.
3. Esnia ..... bezalakua da, zuri-zurixa.
4. .... moduan dago etxeke txakurra, gizen-gizen.
5. .... bezala antxintxika alde egin dabe lapurrak.



1.



2.



3.



4.



5.

1 \_ 2 \_ 3 \_ 4 \_ 5 \_



A.



B.



C.



D.



E.

## INKESTIA



Zein kirolariren moduan jokatzia gustatuko litzakizu?



Saioa Rodríguez

**A**rantxa Sánchez-Vicario tenis jokalarixa gustatzen jat. Guapia ez baiña jokalari ona da eta, gaiñera, sinpatikia. Telebisiñotik ikusi izan dot eta oso borrokalarixa da.



Borja Elkoroberezibar

**N**i Realekua naiz, eta Nihat da nire jokalari faboritua, korrika asko egitten dabelako eta golak sartzen dittualako. Kovacevic eta Karpin be asko gustatzen jat.



Miren Zaloña

**A**ranzabal Realeko jokalarixa eta Edurne Pasaban mendizalia dira nire kirolari faborituak. Pasabanen moduan, egun baten nik be Everestera igo nahi neuke.



Ane Puente

**E**gixa esateko, kirolari baten moduan be ez. Gehixen igeriketa eta eskixa gustatzen jat, baiña ez daukat kirolari berezirik. Ez naiz kirolarixetan asko fijatzen.

## NERE GOMENDIXUA



Olatz Ugalde  
San Martin ikastetxea

**EZUSTE EZUSTE**  
Colin eta Moira Maclean  
Fhersal argitaletxea



**O**latz etxetik urten zan, eta opari bat topau zeban. Papelian zera jartzen zeban: "Mikelen oparixa". Gero, hurrengo lekura juateko pistak emoten zotsen. Azkenian, etxia topau zeban, eta bertako lorategira sartu zan. Oparixa zabaldu zeban eta... kui bat zan. Liburuaren amaieran mapa bat dago, Olatzek zelako bueltia egin daben jakittek. Eta onduan 19 galdera be badare.



# ipuinia


## ERBIXA ETA TRIKUAK

**B**ehin batian triku jauna bere zulotik irten zan pasiatzera. Belardi batian erbixa topatu zeban, hau be bere lurpeko zulotik irten berrixa. Trikuak begirune handiz agurtu zeban:

- Egunon erbi jauna.
- Baiña erbixak zakar baiño zakarrago erantzun zotsan:
  - Zer egitten dozu hemen hain goiz?
  - Hementxe, pasiatzen.
  - Pasiatzen? Hobe dozu hankatxo barregarri horrek ez nekatzia.
  - Zer uste dozu, zure hankak neriak baiño hobiak direla?
  - Jakiña! Lurrazalian eta baita lurpeko zuluetan zihar be.
  - Ni ez nago hain ziur. Egingo dogu lasterketa bat? Belardi hau alderik alde zuk baiño lehenago zeharkatu baietz!
  - Nahi dozunian.
  - Etxera jua bihar dot gosaltzera. Ordu erdi barru bertan.
  - Ados. Azenario sorta bat irabazliandako.

Trikua etxera jua zan. Andriari apustuaren berri emon eta belardira jua ziren bixak.

- Begira, erbixa zulo batetik juango da eta ni beste batetik. Belardixan beste aldetik irtengo gara bai, eta zu egon han ezkutatuta. Erbixa gerturatzen danian hau esan: “Zu baiño azkarrago aillegatu naiz”.



Lasterketa hasi eta erbixa zitzu bizian abentau zan. Trikuak, ordea, etzan egin zan zulo barruan. Erbixa belardiaren beste aldera aillegau zanian trikuaren andria topatu zeban

- Zu baiño azkarrago aillegau naiz –esan zotsan triku andriak.
- Zela leike?? –Erbixak ez zeban ezebe ulertzen.
- Beste lasterketa bat egingo dogu. Oinguan bestaldera.


Erbixa tximistaren pare abentau zan berriro be, baiña bestaldian zein topauko eta trikuak:

- Zu baiño azkarrago aillegau naiz.

- Zela....? Beste bat egingo dogu.
- Hirurogeita hiru jua-etorri egin zeben antxintxika.
- Hirurogeita laugarrenian erbixa hankaz gora geratu zan.
- Trikuak erbixa bertan behera laga eta etxera aldegin zeben.
- Hurrengo egunian azenarixo sorta eder bat topatu zeben atarixan.
- Tira, bere hitza bete zeban behiñik behin erbi harruak.






Deutsche Post  World Net  
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



## Guipuzcoana Euro Express: Nazio eta Europa mailako paketeria garraioa

San Juan Erreka z/g Elgeta bidea. Bergara - Tel. 943 763 642 - Faxe 943 765 425

 **GUIPUZCOANA**  
**EURO EXPRESS**

## ZAHARREN ETXETIK

# UNED ikastetxeak eta San Joxepe elkarteak hainbat ikastaro antolatu dituzte, Heziketa Iraunkorreko Planaren barruan

EDU MENDIBIL

**B**ergarako UNED ikastetxeak eta San Joxepe erretiratuen elkarteak Heziketa Iraunkorreko ikastaroak iragarri dituzte 2003. urterako. Izene-matea abenduaren 15era arte izango da zabalik.

Programa hiru fasetan banatuta dago: lehenbizikoan, giza harremanekin eta osasunarekin lotutako gaiak landuko dituzte; bigarrenean, gure ingurua ezagutzeko materiak eskainiko dituzte; eta, azkenik, hirugarrenean, aukerarako hainbat ikastaro izango dira, informatika, tai chi, musika eta margolaritza, tartean.

Heziketa Iraunkorreko Planaren helburu nagusiak hiru dira: alde batetik, adineko pertsonen kolektiboan kulturaren formazioa eta promozioa bultzatzea;

beste alde batetik, bizi kalitatea hobetzeko eta zahartze osasungarria lortzeko urratsak ematea; eta, hirugarrenik, kultura esperientziak elkar trukatzeko topalekua sortzea.

## GIZA HARREMANAK ETA OSASUNA

Esan bezala, lehenbiziko fasean giza harremanen eta osasunaren gaineko eskolak eskainiko dituzte. Hain zuzen ere, 2003ko urtarrean eta otsailen, ondoko ikastaroak izango dira: urtarrilaren 16an eta 23an, giza harremanak izango dira aztergai; urtarrilaren 30ean eta otsailaren 6an, osasuna eta bizitza osasungarria; eta otsailaren 13an eta 20an, dietaren eta osasunaren arteko loturen gainean mintzatuko dira.

Eskolak arratsaldean izango dira, 17:00etatik 20:00etara, eta argibide gehiago jasotzeko San Joxepera (943 76 30 09 telefonora) dei dezakete interesatuek.



Heziketa Iraunkorreko Planaren lehen fasean giza harremanak eta osasuna izango dira aztergai.



## Gabonetako saski ederra San Joxepen

San Joxepeko harrera gelan dago ikusgai Gabonetako saskia. Argazkian ikusten den saski ederra abenduaren 19an zozketatuko dute, San Joxepe elkartearen, 18:00etan. Irabazlea Gabonetako loteria-txartelak erosi dituztenen artean aterako da; izan ere, Gabonetako loteria-txartelak (25.304 zenbakia) beste zenbaki bat daukate saskiaren zozketarako. Loteria-txartel guztiak salduta daude dagoeneko. Lau eurotan saldu dituzte, 3,70 euro loterian jokatzeko eta 0,30 euro saskirako.


## Erretiratuendako Informatika ikastaroak, abian, San Joxepen

E.M.

Oraingo astean, Informatika ikastaroak abian jarri dituzte, San Joxepe erretiratuen elkartearen. Hain zuzen ere, Word-eko sakontze ikastaroa, Irudiak eskaneatzeko ikastaroa eta Marrazketa ikastaroa eskainiko dituzte San Joxepeko Informatika Gelan datozen asteotan. Guztira, 27 lagunek eman dute izena ikastaro horietan parte hartzeko, baina San Joxepeko arduradunen esanetan, helburua 35 lagunentzako partaidetza lortzea da. Interesatuek 943 76 30 09 telefono zenbakira dei dezakete, argibide eske.

### INFORMATIKA GELAK, HARRERA ONA

Joan den astera arte, berriz, 29 lagunek jardun dute Informatika hasiera eta sakontze ikastaroetan. Jokin Espinosa arrasatearra izan da irakaslea, eta ikasleek ordenagailuarekin trebatzen ikasteko




Informatika hasiera eta sakontze ikastaroetan 29 lagunek jardun dute.

lehen urratsak eman dituzte.

San Joxepeko erretiratuek gero eta interes handiagoa azaltzen dute informatikarekiko.

Informatika Gela zabaldu zutenetik hona, gero eta erabiltzaile gehiago daude. Informatika Gelan 10 PC ordenagailu daude.



**Ur~bide**  
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 /  
666 517 295

**Arin jatetxea**

**BERRIZ ZABALIK**

Eguneko menua · Menu berezia  
Karta · Kintadak

Kalebarren 7 **ANTZUOLA** 943 78 71 63

E, TXO!

GUREGAIK/ ATERPETXEAK

# Aterpetxeen elkarteak aldizkaria sortu du

AINTZANE IRIZAR

**Gazteendako aterpetxeen Estatuko elkarteak aldizkari bat argitaratu du: *Albergues juveniles* du izena aldizkariak, eta urrian kaleratu zuten lehendabiziko zenbakia. Hilabetekaria izango da.**

Aisialdiarekin, gazteekin, aterpetxeekin, turismoarekin eta musikarekin lotutako hainbat gairen gaineko informazio, albiste eta erreportajeak landuko dituzte, besteak beste, eta horrelakoxe albisteak topatuko ditugu lehendabiziko zenbaki horretan ere.

Esate baterako, ireki berri dituzten aterpetxeen gaineko

albisteak, bisitatu ditzakegun tokien gainekoa edo elkartasun kanpainen gaineko informazioa topa dezakegu *Albergues juveniles*-en urriko zenbakian. Baita Estatuko aterpetxeen elkartearen gaineko informazioa ere.

**ESTATUKO 200 ATERPETXE**

Berrehun aterpethek osatzen dute elkarte hori; horietatik, 23 Euskal Herrikoak dira.

Aldizkarian azaltzen dutenaren arabera, bost euroren truke aterpetxe txartela egiteko aukera eskaintzen die aterpetxeen elkarteak 30 urtetik beherako gazteei. Izan ere, 26tik 30era igo du aurten elkarteak aterpetxeetako txartela egin dezaketenen adina.



Gorlizko aterpetxea, Estatuko elkarteetako bat.

LOTSABARIK/ Joseba Lasa

# “Nire burua ez dut ohiko lanetan ikusten”

AINTZANE IRIZAR

**Duela gutxitik komikigile berria dugu gazteen sail honetan, eta hari egin diogu oraingo astean elkarrizketa hau. Komikiaz aparte, musika da haren zaletasunik handiena; baxua jotzen du Josebak.**

• Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Dinosauruak biziki gustatzen zitzaizkidan, eta paleontologo izan nahi nuen; baita musikari ere.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zeure burua?

Espero dut nire musika taldearekin hara eta hona kontzer-

tuak ematen ibiltzea. Ez dut neure burua ohiko lan baten ikusten.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriro?

Ikasteko eta formala izateko; kalera irteten naizenean ez egiteko tontakeriarik.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Ez daukat taktikarik; egia esan, denetik probatu dut gurasoekin, baina batek ere ez dit funtzionatu.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Batez ere, lagunei eta familiari; baita osasunari eta musikari ere.

• Zure bertute bat? Pertsona ona naizela uste dut.

• Eta hutsune bat?

Oso burugogorra naiz.

• Zerk amorratzen zaitu? Engainuek, gezurrek.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Denari, orokorrean; ez diot gauza bati bakarrik begia botatzen.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?



Nik ez dakit seduzitzen; jendeari elkarrizketa ematen saiatzen naiz, baina...

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non? Ez noa esatera, sail hau umeek ere irakur dezakete eta...



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoko bigarren maila • ZALETASUNAK: Musika • MUSIKA TALDEA: Geurea, Black sheeps  
LIBURU BAT: 'Cien años de soledad', Gabriel García Márquezena • FILM BAT: 'Quadrophenia' • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Alvarez





BERGARA  
**Leire Igarza**  
Abenduaren 2an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA  
**Peio Otaño**  
Azaroaren 29an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Mariñe eta etxekoak.



BERGARA  
**Mariano Losada**  
Azaroaren 30ean urteak.  
Urte askotarako! Aitzol,  
Manex eta familiakoak.



BERGARA  
**Ibai Sanz**  
Abenduaren 1ean 3 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Irati.



BERGARA  
**Uxue Murgiondo**  
Abenduaren 4an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA  
**Iñigo Astiazaran**  
Abenduaren 2an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Miguel Fernandez**  
Abenduaren 1ean  
urtebetetzea. Zorionak!  
Susana, Gorka eta Unai.



ELGETA  
**Ibon Unzetabarrenetxea**  
Azaroaren 30ean 9 urte.  
Zorionak! Etxekoak.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:  
**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Bärrenkalea 33  
**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenean 17:00etatik 19:00etara  
**Elgeta:** Erosle-Baltxongua

**SANTOS**



**Etxetresna elektrikoak  
eta argiztapena**


Masterreka 2. BERGARA  
Tf. 943 76 26 10

**BERGARA  
MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA**

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA  
943 76 11 99 / 14 47.  
Faxa: 943 76 04 77

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Garai baten San Martin Agirre ermita zegoen tokiaren aurrean dago ermita hau. Ze izen du?

GALDEDEBALDE

1.

Zenbat herritarrengan eragingo du Bolurako egingo duten uraren azpiegitura berriak?

- A/ 1.755.
- B/ 2.235.
- C/ 1.375.

2.

Zein jaialditan parte hartuko du Taun-Taunek Rosarion, Argentinan?

- A/ El teatro de los arrabales.
- B/ Experimenta 5 teatro.
- C/ Quimbambas.

3.

Domekan jokaturako Donostiako maratoian, zein izan zen herriko onena?

- A/ Roberto Zurro.
- B/ Jon Aranzabal.
- C/ Bixente Pagaldai.

PINTORE BERGARARRAK GAUR

Dani Laskurain

EDU MENDIBIL

Azken sei urteotan Iruñeko institutu baten plastika eskolak ematen dihardu Dani Laskurainek (Bergara, 1966). Leioako Arte Ederren Fakultatean egin zituen ikasketak, eta pinturarako zaletasuna txikitatik datorkiola dio, aitaren laguntzarekin margotzen hasi zenetik. Orditik hona, makina bat lan egin ditu, eta azken erakusketa iaz egin zuen, Bilbon. Jasotako sarien artean, unibertsitatean zela, Jaurlaritzak emandako Euskadiko Arte Plastikoen saria nabarmentzen du.

Bere lanak definitzerakoan, zera diosku: "Hondo abstraktuak eta haien gainean figurak eta eguneroko gauzak eta bizipenak islatzea gustatzen zait. Zaila egiten zait nire estiloa zehaztea, baina estilo guztietatik zerbait ikasteko dagoela uste dut". Besteak beste, Manolo Valdés, Barceló edo Bacon pintoreak ditu gustuko. Iruñeko etxean lan egiteko estudioa dauka, eta itsas giroko margoak egiteari ekin dio: "Itsasoan ia astero ibiltzen naiz, anaiarekin, eta belauntziak marrazten ari naiz aspaldian. Itsas gaien erakusketa egin nahi nuke etorkizunean".

*"Hondo abstraktuen gainean eguneroko gauzak eta bizipenak islatzea atsegin dut"*



ARTXIBOA



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

AINHOA MARTINEZ endako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Ainhoa!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Itturbe / Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

N<sup>a</sup> Sra. de Ujue ardoa

Nafarroako ardoa, 75 cl.

1,25 €

208 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**JOXAN**  
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

**REMENTERIA**

Altzariak

Egongelak  
Logelak  
Aukera guztiak  
Enkarguan

Artekalea, 6  
BERGARA  
943 76 13 29



**Silvestre Muñoz, s.l.**  
pinturak

610 25 99 82  
610 25 40 37  
943 76 24 11  
Amillaga 1, 10 pabilioia.  
20570 BERGARA

Pintura-lanak  
orokorrean

•  
Pintura industrial

•  
Zoru arinak:  
sintasolak, moketak...

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko azaroaren 29a / 136. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Oinezkoendako bidea egingo dute Kalebarrendik frontoi aldera

AINZANE IRIZAR

Aurreko egubakoitz eguerdian bota zituzten Kalebarren garaje eta txabola. Gune hartan oinezkoendako bidea eta jolasparkea egiteko asmoa dauka Antzuolako Udalak. Horretarako, esku artean duen aurreproiektua garatu beharko dute orain.

Egubakoitz eguerdian, hiru garaje eta hainbat txabola bota zituzten Kalebarren hondeatzeko makina batek. Ikusmin handia piztu zuten lan horiek, eta jende mordoa batu zen inguru hartan.

Antzuolako Udalaren asmoa da garaje eta txabola haiek zeuden tokian Kalebarren eta frontoia batuko dituen oinezkoendako bidea egitea.

Horretarako, aurreproiektua eginda daukate, eta orain, behin betiko proiektua egitea geratzen zaie.

Esku artean duten aurreproiektu horren arabera, eskailera batzuk, lorategia eta umeendako jolasparkea egingo dituzte. Baita ataripea ere: aldameneko etxebizitzak aurreko eta atzeko aldeetan dituen ataripeekin bat egingo du ataripe horrek.



Aurreko asteko egubakoitz eguerdian bota zituzten garajeak eta txabolak.

### ETXEBIZITZAREN FATXADA

Oinezkoendako bidea, lorategia eta jolasparkea egitearekin batera, ondoko etxebizitzaren aldameneko fatxada lehen baino ageriago geratuko da. Horregatik,

fatxada hori txukuntzeko asmoa ere badauka Udalak; dena dela, oraindik ez dute horren gaineko erabakirik hartu. Aukera bat baino gehiago aztertuko dituzte fatxadarekin zer egin erabaki

aurretik: leihoak egitea, etxebizitzak handitzea edo fatxada txukuntzea.

Urtea bukatu aurretik proiektua eginda izango dutela espero dute Udaleko arduradunek.



### EHNA agiriak jaso dituzte

Joan den hilaren 13an iritsi ziren, azkenean, Euskal Herriko Naziotasun Aitorpenak udaletxera. Lehendabiziko hirurogei agiriak iritsi dira, oraingo, baina oraindik berrogei bat herritarren agiriak tramitatzen dihardute.

Orain iritsi diren agiriak jasotzen hasi dira dagoeneko eskaera egin zuten herritarrek. Guk horietako batzuk harrapatu genituen, aurreko astean, udaletxeko bulegoan aitortpena eta agiria jasotzen./A.I.

### LABUR

#### Joxe Biteri, Kutxako saridunen bultzatzailea

Joan den egubakoitzean bantatu zituzten Kutxak ematen dituen Ekintzaile Onenaren sariak. Emestix eta Icavinet proiektuek jaso zuten lehen saria. Proiektuen egileek Joxe Biteri antzuolarraren laguntza eta lana goraipatu nahi izan zuten sari banaketa ekitaldian.

#### Lazo zuria jarri zuten udaletxean, astelehenean

Emakumeen aurkako tratatu txarren kontrako eguna zela eta, lazo zuria jarri zuten udaletxeko balkoian, astelehenean, azaroaren 25ean. Bestalde, Ramon Gil Ostoa preso politiko ohiaren heriotza zela eta, Ikurrina krespoi beltzarekin ere jarri zuten udaletxeko balkoian.

#### Erakusketa berriro zabalduko dute aste bukaeran

Simonen eta Kaxianoren gaineko erakusketa berriro zabalduko dute oraingo aste bukaeran. Izan ere, argazki eta material erakusketarekin batera jarri zuten bideoarekin hainbat arazo izan zituzten. 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:30era egongo da zabalik, Olaran etxean.

#### Zinema emanaldia izango da oraingo domekan

Simonen eta Kaxianoren erakusketa berriro jarriko duten arren, oraingo domekan, zinema emanaldia izango dugu. Olaran etxean. 16:30ean izango da hori, eta *Spiderman* filma eskainiko dute. Datorren domekan, berriz, *Spirit* filma ikusteko aukera izango dugu. 16:30ean hori ere, Olaran etxeko aretoan.

ANTZUOLA INTERNETEN

# Antzuolako webgunea abenduan sareratzeko asmoa dute

AINZANE IRIZAR

Gipuzkoako Foru Aldundiak eman zituen dirulaguntza batzuk aprobetxatuz, teknologia berriei heldu nahi izan die Udalak. Hainbat hilabete darama herriaren gaineko webgunea antolatzen eta diseinatzen, eta abenduan sareratzeko asmoa du.

Udaleko arduradunekin lankidetzan Arrasateko Bertan enpresa ari da herriaren gaineko webgunea prestatzen. Bertan enpresako Andoni Larrañaga antzuolarra da, gainera, webgunearen diseinuaren arduraduna.

Esan bezala, Gipuzkoako Diputazioak udalak modernizatzeko eta teknologia berriekin lanean hasteko emandako dirulaguntzak aprobetxatu nahi izan ditu Antzuolako Udalak, horrek

guztiak duen garrantziaz ohar-tuta. Antzuolarekin batera, Gipuzkoako herri askok parte hartu dute proiektu horretan.

## HERRITARRENDAKO ETA KANPOKOEN- DAREN WEBGUNEAK

Bi helburu nagusi ditu Udalak webgune horrekin: batetik, herritarrei Antzuolako ekitaldien berri ematea, Udalak hartutako erabakien berri edo Udalaren hainbat oharren berri.

Bestetik, baina, kanpotarrendako ere badago pentsatuta webgunea. Izan ere, herrira etortzeko asmoa duten kanpotarrak informatzeko helburua ere badute, herriaren gaineko hainbat datu emanda.

Azken ukituak besterik ez zaio falta webguneari, eta, esan bezala, abenduan sarean jartzeko asmoa azaldu digute Antzuolako Udaleko arduradunek.

Antzuola	Udala	Zerbitzuak	Agenda	gomendatu	bisita libu
Kokalekua					
Kaleak					
Auzoak/ baserriak					
Historia					
Artea					
Eskola					
Kultur/kirol taldeak					
Garraiobideak					
Jaiak					
Mairuaren Alardea					
Irudiak					
<b>Ibilbideak</b>					
Senidetzeak					
Argitalpenak					

Antzuolaren sorleku Uzarraga izan zen, herrigunetik bi kilometro dagoen elizaurri eta Gipuzkoako bederatzigarren zaharrena. Bertan dago Joan Bataiatzaile Deunaren eliza, ohiaren arabera, Tenplarioena zena. Antzuola edo egungo herrigunearen historia, berriz, Olalde eta inguruen Magdalena eskainia zegoen ospitalarekin (1489) eta bertan eraikitzen ari zen Gure Errukizko Amaren parrokiarekin batera (1525) hasi zen. Antzuolak eta baita Uzarragak ere betidanik izan dute Bergararekin lotura, eta hal 1391ko urtariraren 20an Bergarako hirjari erantsi zitzaion, harik eta 1629ko abenduaren 12an, Felipe III.ari urrezko 5.000 dukat ordaindu eta gero, herri izaera lortu zuen arte. Jarduera ekonomikoan ere nabarmendu da Antzuola XIX. eta XX. mendeetan zehar. Ezin ahaztu dagoeneko desagertuta dagoen langintza garrantzitsu izan zen larru-ontzea.

Azken ukituak besterik ez zaie geratzen webgune berria bukatzeko.



## Aiherrako Elkartasun Egunean giro ona izan zuten

Orain dela bi aste ospatu zuten Aiherraren eta Antzuolaren arteko Elkartasun Eguna. Aiherrakoei ibilaldi polita prestatu zuten hemendik joandakoendako: Baigorri, Urepele, Aldude eta Banka herriak bisitatu zituzten antzuolarrek. Oso ondo pasatu zuten, baina gazte jende gutxi joan zen; ea, bada, hurrengoan jende gehiago animatzen den! /A.I.

## KIROLA

### PARTIDUAK

#### FUTBOLA

Azaroak 30

15:45: Antzuola-Gazteak (Gazteak)

#### PILOTA

Azaroak 30 (Gipuzkoako Kluben

Arteko Txapelketa)

17:00etatik aurrera:

Olalde-Erriope (eskuz nagusiak)

Olalde-Altzarra II (paletaz nagusiak)

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

Antzuola 8 Gazteak B 2 (2. erreg.)

Aretxabaleta 4 Antzuola 1 (Gazt.)

#### PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko

Txapelketa

Illunpe-Olalde (eskuz inf.) . . . . . 18-11

Kuku-Olalde (paletaz nag.) . . . . . 11-35

## Larrea, bere mailako 30.a, Donostiako Maratoian

Bi antzuolarrek hartu zuten parte domekan jokatu zen Donostiako maratoian: Iker Larreak 02:42:45 egin zuen, eta bere mailan 30. postuan sailkatu zen. Edozelan ere, ezin izan zuen iazko marka hobetu (2 ordu eta 35 minutu).

Gorka Garitanok, berriz, lehen aldiz hartu zuen parte Donostiako Maratoian, eta 03:35:46 egin zuen.

## Pilota Txapelketako finalerdiak, bihar, zapatua

Bihar, hilak 30, jokatuko dituzte Olalde antolatutako Pilota Txapelketako finalerdiak. Finalak, berriz, abenduaren 14an (zapatua) jokatuko dituzte, bai lehen mailan, baita bigarrenen ere.



**MUEBLES IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan espezializatuak

**LEKY-BERRI MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko azaroaren 29a / 120. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: 55475/95

## Batasuna legez kanpo, nork bere izenean bozkatzen dute alderdiko hiru zinegotziek

OXEL EROSTARBE

Batasuna legez kanpo egonda, osoko bilkuretan nork bere izenean ematen dute botoa Batasunekoak ziren zinegotziek. Horren zergatia eta legez kanpo egoteak izan duen eragina jakin nahi izan dugu. Hauteskundeei begira, aurkeztea da euren asmoa.

Bittor Gallastegi, Sebastian Arantzabal eta Xabier Basauri dira uda bukaera arte Batasunaren izenean jardun zuten zinegotziak. "Legez kanpo utzi gintuztenetik, nork bere izenarekin ematen du botoa Udaleko erabakietan. Herri batzuetan, Sozialista Abertzaleak izena hartu du alderdiak. Horren gainean erabaki zehatzik hartu ez denez, nork bere izenean botoa ematea erabaki dugu. Ez da arrazoi jakin batengatik, ez dauka inongo motibazio politikorik. Denon artean erabakitzen dugu zeren alde bozkatu".

**LEGEZ KANPO EGOTEAREN ONDORIOAK**  
Elgetako Batasunaren eguneroko jardunean eragin nabarmena izan du legez kanpo egoteak: "Herrian lan egiteko informazio eta mate-



Legez kanporatzeak Elgetan izan duen eragina azaldu digute Bittor Gallastegik, Sebastian Arantzabalek eta Xabier Basaurik.

rialal alderdiaren egituratik lortzen genuen. Egitura ahuldu da, eta herrietan lan handiagoa egin behar dugu. Adibidez, beste urte batzutan ez bezala, tasen eta zer-

gen gaineko erabakia hartzeko orduan ez genekien Gipuzkoako herrietan tasak eta zergak zela igo diren. Gauza bera gertatu zaigu beste zenbait gaietan".

**BARNE FUNTZIONAMENDUAN, ANTZERA**  
Bestalde, Udaleko jardunean gauzak ez dira horrenbeste aldatu: "Barne funtzionamenduan gauzak nahiko antzera jarraitzen

*"Legez kanporatzeak ahuldu egin du egitura; herrietan lan handiagoa egin behar dugu"*

dute. Gure eskuetan dauden komisiotan lanean jarraitzen dugu. Horri dagokionez, ez da aldaketa nabarmenik izan. Egia da gertatu denak baduela eragina, Udaleko arazoetan baino gehiago, beste gauza batzuetan pentsatze-ramaten gaituelako".

**HAUTESKUNDEETARA AURKEZTEKO NANIA**  
Hauteskundeetara aurkezteko asmoa dute: "Geldiunean gaude; gure asmoa hauteskundeetara aurkeztea den arren, ez dago erabakita zelan egingo dugun. Beti egon da Elgetan ezker abertzaleko ordezkariak. Proiektu politikoa badago, eta demokrazia normalizatuan derrigorrezkoa ikusten dugu horren presentzia. Proiektua ordezkaturiko dutenak baino gehiago, proiektu horren defentsa da garrantzitsuagoa".

## ORDENANTZA FISKALAK

### Zergak eta tasak % 3,5 igotzea onartu dute

O.E.

Aurreko asteko osoko bilkuran Ordenantza Fiskalen gainean jardun zuten Udaleko ordezkariak. Zergei eta tasei %3,5eko igotzea ezartzea onartu zuten, hau da, KPI beste. Desadostasunak tasa hauek igotzeko orduan izan ziren: ondusun higiezinaren gainekoetan, ekonomia jardueren gainekoetan eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gainekoetan. Hiru tasa horietan %3,5eko igotzea ezartzea EAJ-EAren aldeko botoekin onartu zuten. Bittor Gallastegi, Xabier Basauri eta Sebas Arantzabal zinegotziak abstenitu egin ziren

### Igoera bereziak

	2002	Igoera	2003
Hilerrriaren zerbitzua	105,17 €	%2,86	108,18 €
Ura (m <sup>3</sup> bakoitzeko)	0,63 €	Berdin	0,63 €
Etxez etxeko laguntza (orduko)	5,51 €	%41,49	7,81 €

igoera horiek bozkatzeko orduan.

**IGOERA BEREZIAK ZENBAIT TASATAN**  
Ur zerbitzuaren kudeaketa Ur Partzuergoak hartu duela eta,

uraren prezioaren gainean eztabaida izango zela aurreikusten zen. EAJ-EAk tasa horri igotzerik ez ezartzea proposatu zuen. Eta zinegotzi guztiek aho batez

onartu zuten proposamen hori. Bestalde, hilerriko zerbitzuak eta etxez etxeko laguntzak igotzea berezia izango dute.

**BATZORDEETAKO GASTUAK, MUGATUAK**  
Aurrekontuetan aurreikusita egon arren, batzordeek ezin izango dute gastu berezirik egin Udaleko diruzainari jakinarazi barik. Halaxe adierazi zien Patxi Basauri alkateak batzordeetako buru diren zinegotzietan. Dirudienez, zehaztuta zeuden zenbait diru sarrera ez dira bete eta, aurrekontuak ixteko orduan arazorik ez izateko, erabaki hori hartzea erabaki du Elgetako alkateak.

## LABUR

**'www.elgeta.org' da Udal webgunearen helbide berria**

Aurreko astean, [www.elgeta.net](http://www.elgeta.net) helbidea eman genuen Elgetako Udalak egin duen webgunera sartzeko helbide moduan. Orain ere sar daiteke helbide horretatik, baina [www.elgeta.org](http://www.elgeta.org) da URL egokia. Jakin ezazue albiste elektronikoko moduan ere funtzionatzen duela, eta etxeko helbidean ere jaso daitezkeela Elgetako Udaleko berriak. Izena eman eta kito, ez da besterik egin behar. Astero-astero sartzan dira pare bat albiste berri. Merezi du ikustea.



**IRAKURLIAREN TXOKUA**

**UDALAREN JARRERA ESPALOIA KAFE ANTZOKIAREN GAINEAN.**

Elgetako Udalak bere ikuspuntua azaldu gura du Espaloia Kafe Antzokiaren gainean:

1.- Elgetako Udalak, inolako zalantzarik gabe, Espaloia Kafe Antzokia bultzatzearen aldeko jarrera du.

2.- 2000 eta 2001 urteetan 82 milioi pezeta inbertitu ziren lanetan, gaur egun dagoen moduan laga arte.

3.- 2002ko urriaren 3an egindako Gobernu Batzordean 2. zatiko proiektua aurkeztu zen Espaloia Kafe Antzokia bezala garatzeko, eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidali zen. Proiektu horretan honakoak jasotzen dira:

a) Obra zibila (igeltserotza, iturgintza, gasa, elektrizitatea, eta abar. Guztira 12.124.715 pta.

b) Altzariak eta osagarriak (altzari guztiak, argiak, taberna, gortinak, plataformak eta sukalde. Guztira 19.116.420 pta.

c) Eskenatokia, soinua, telak, eta abar. Guztira 12.960.080 pta.

Guztira: 44.201.215 pta.  
Finantziarioa, berriz, horrela aurreikusten da: Udalak 20.218.055 pta., Goibeko Kultur Elkarteak 14.000.000 pta., eta Diputazioak (eskatutako dirulaguntza) 9.983.160 pta. Guztira: 44.201.215 pta.

3.- Momentu honetan 2003. urterako aurrekontuak aztertzen ari gara, eta hor aurreikusten dira aipatutako obrak egiteko inbertsioak.

4.- Abenduan hasita adostuko dira Goibeko Kultur Elkartearekin obren egutegia eta hartu beharreko konpromisoak. Lanak 2003ko urtarriletik aurrera hasita aurreikusten da, eta bukatu, berriz, 3 hilabete geroago.

Udalak ez du inoiz albo batera laga proiektua, eta interes handia du aurreikusitako epeetan amaitzeko. Ulertzekoa denez, kudeaketa ekonomikoa oinarritzkoa da, eta Udalak baditu 2003. urterako dirutza behar duten beste proiektu garrantzitsu batzuk ere.

Horregatik guztiagatik, espero dezagun Espaloia Kafe Antzokia laster errealitate bihurtzea elgetar guztiontzat.

PATXI BASAURI  
Elgetako alkatea

**KIROLA**

**Ubera II.a eta Bengoetxea, DV Txapelketako finalerako bidean**

O.E.

Xabier Uberak eta Jon Bengoetxeak DV Txapelketako finalurrekoa jokatzeko txartela lortu zuten aurreko barikuan. Hain zuzen, Erroizenea eta Zapirain hartu zituzten mendean (22-19). Hasieratik nagusi izan ziren arren, Uberak eta Bengoetxeak ez zuten partidu onik egin. Eibarko atzelariak hasiera bikaina izan zuen, baina hori ordaindu egin zuen amaieran, guztiz nekatuta bukatu zuen-eta. Laguna makal zegoela eta markagailuan berdinketa zegoela ikusita (19-19), Xabierrek hartu zuen tantoak amaitzeko ardura. Baita lortu ere: 19-19tik berehala joan ziren 22-19ra. Finalurrekoa Martínez de Irujoren eta Zabalaren aurka jokatu dute, abenduaren 7an.



FELIX MORQUECHO

Jon Bengoetxeak joko bikaina erakutsi zuen Astelenan jokaturako partiduan.



**Bidera jausitako lurra, kendu barik**

Begarako bidian, Mistei basarri parian dago erretratuan ikusten dan lur multzua. Hiru aste bete dira lurra bidera jausi zanetik. Eurixaren eraginez, zelaixa eusten daben pareta be jausi zan bidera. Harrixak kendu zittuen arren, lurra batzen juan da bide bazterrian. Aurreko aste bukaeran egin zeben eurixekin multzua haunditu eta haunditu doia. /O.E.

**LABUR**

**Hiesaren gainian jardungo dabe, bihar, gaztetxian**

Hemen domekan, abenduak 1, Hiesaren kontrako borrokaren nazioarteko eguna dala eta, Hiesaren gainian jardungo dabe, Elgetako gaztetxian. Herriko gaztiak, horren gainian informatzeko, ber baldixa, mahai-ingurua eta merienda antolatu dittue.

Bihar atsaldian izango dira horrek ekitaldixok. Atsaldoko bostetan, Hiesaren gaineko berbaldixa izango da. Gipuzkoako Hies Elkartekuak etorriko dira Elgetako gaztetxera. Ber baldixaren ostian, barriz, Hiesa daukan lagun batek bere esperientzia pertsonala kontauko dau.

Hiesaren kontrako borrokaren nazioarteko eguna dala eta, antolatutako ekintzekin bukatzeko, merienda izango da, illuntzeko zazpirak alde- ra, gaztetxian bertan.

**JARDUNABALKOITTIK**



**Oxel Erostarbe**

**23:25ian, eromerixia**

Giro aparta espero neban, baiña kristaurik be ez neban ikusi kortiña ostetik. Soñuan notak altu eta plazako farolak izoztuta. Behin batian Loiolan, eromeria... zapatu gabian gramoliakin eromeria. Oherako bidian eten zan, 23:25ian. Bost disko sartzen dira, plazako etxeko musika aparatuan. Azkenengo diskoko, azkenengo kantziñua amaittu artian, aparatua martxan. Ez da lehenengo aldixa...

Domeka goizian, remix bateko abeslarixekin egin neban hamaiketakua. Kanpandorreko kanpaiak entzutiakin batera, etxe barrura arte sartu ziran. Mezetatik bueltan, zerutik entzun ginttuala esan zoztan lagun batek.

Beste lagunai ez notsan ezer ulertu. Plazan egon giñan ordu erdixan, zapatu gabeko erromerixan entzundako kantuek gure elkarrizketia etetzen zeben. Asentziara juatekotan izan giñan, baiña aurrekuan haraiño etorri ziran remixeko abeslarixok eta kortiña ostetik ikusitakuak ezin alkarri kontau.

Musikia gustokua dot, aste bukaeran gramolia jartzian aldekoa naiz. Bolumen egokixan, diskuak aldatuaz eta remix barik hobe litzake.

**JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE  
PUBLIZITATEA**

Goibekokale

**SAIOA ARANZABAL  
MASAJEAK**

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



**Jesus Mari Montiel  
ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**

Artetale 3

Mo: 656783299 Eibar

Tel: 943 70 07 19

**KONPONKETAK  
SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**

## ERRETRATU ZAHARRA

ANTZUOLA

Eskolako  
neskatilak,  
1935. urtean

**D**uela hilabete, Antzuolako irakasleak ikusteko aukera izan genuen. Orain, berriz, eskolaume talde baten argazkia dakarkizuegu.

Hona hemen argazkian azaltzen direnak, behean, ezkerretik eskumara: Emeteri Igartza, Asuncion Fernández, Basilisa Loiti, Luisa Urriategi, Jesusa Urriategi, Kontxita, Otaingo Felisa, Angeles Olabarria, Maria Dolores Ugalde, Margarita Iturbe, Kontxita Anduaga, Maria Luisa Araiztegi, Asuncion Agirre, Encarnacion Larrañaga (ilaratik kanpo), Begoña Olabarria eta Juanita Barrena.

Bigarren ilaran: Carmen Agirrezabal, Nati Alberdi, mikeletearen alaba, Maria Iturbe, ezezaguna, Ignacia Aranburu, Pilar Olabarria, Clarita Urriategi, Maritxu Iraola, Ines Arin, Piedad Ramirez eta Mari Luz Arriola.

Hirugarren ilaran: Beneranda Kortabarria, Maria Josefa Jauregi, Maria Dolores Lete, Francisca Irizar, Blanca andereñoa, Mercedes Sagarna, Mercedes Azkarate, Angelita Telleria



eta Higinia Lamariano.

Laugarren ilaran: Maria Luisa Agirrezabal, Maria Arregi, Julia Arrieta, Ines Txintxurreta, Martina Larrañaga, Marina Peña, Tomasa Mendizabal eta Irene Solagaistoa.

Argazkia: 'Antzuola 1900-1970' liburua

## ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!


## NOLA ALDATU DIREN GAUZAK

ANTZUOLA

Maristetako  
Andre Maria


**U**rte askoan maristena izan zen gerora Guraso Elkartearena izandako eraikina. Hantxe, errepede aldera ematen duen horman, Andre Mariaren irudia jarri zuten, 1954an. Gaur egun, Larderon (Errioxa) dago irudi hori.

Maristen eraikineko irudi bat ekarri nahi izan dugu oraingo astean; izan ere, nahiko txarto dago, eta laster eraitsiko dute.



1954

Urte hartan bertan jarri zuten Maristen kaperako sarrera gainean Andre Mariaren irudia, aldame-neko argazkian ikusten dena, hain zuzen.



2002

Urte askoan Antzuolako eraikinean egon ondoren, gaur egun, Larderon (Errioxa) daukate maristek Andre Mariaren irudi hori.



**Zumelaga**  
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.  
BERGARA  
943 76 05 09



Urteaga 9  
BERGARA  
Tf. 943 76 18 45

*izeder*

ARTE DEKORATIBOKO  
ikastaroak

943 76 71 05.  
Arruriaga 2. BERGARA

# 1 euskal selekzioaren cd-rom jokoa



**eskatu orain!**

**902 010 735**  
Telefonia 24 orduz.

**Imajina dezakezun guztia!**



Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!




Aukera ezazu taktikarik egokiena



Jokatu: Munduko Txapelketa, Lagun arteko partiduak, sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n Txilenak, erregateak, jaurtiketak, sarrera ikusgarriak, golen ospakizunak...  
Giro-soinu aparta, Ikurrinak harmailetan...  
Jokoaren estatistikak  
Jokaldi onenen errepikapenak...  
Lau futbol zelai aukeran.  
Partiduak egunez, gauez, euriarekin...



**euskal selekzioaren bufanda**  
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean,  
72 orduan bidaltze gasturik gabe



**35,95 euro**

Jokoa orain erosiz gero, bufanda eta garraioa

**DOAN**

Nagore Ferreiro eta Maite Nuñez,  
diseinu eta koordinazio arduradunak.



# Kaixo!



Jakinako lantalde berria gara.

Zure etxeko sukaldea eta bainugela ondo  
berritu ditzazun lan egiten dugu.  
Eta zeramikako azken berrikuntzak ere  
eskaintzen dizkizugu.



Diseinua, kalitate/prezio erlazio bikaina eta  
saldu osteko zerbitzu ezin hobea dira gure  
ezaugarriak.



Gainera, gremio guztiak koordinatzen  
ditugu.

Eta, orain, aukera berezia daukazu:  
erakusketa aldatu behar dugulako, prezio  
bereziak sukaldeetan eta bainugeletan.

Zain gauzkazu.  
Jakina, zurekin pentsatzen.

**FAGOR**  
Sukaldeko altzariak



# JAKINA

BAINUGELAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK

JAKINA  
San Lorenzo Industri Pol.,  
Amilaga 10. BERGARA.  
Tel.: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.